



ARGIA

BERTSOLARITZAREN IKERKETA
SOZIOLINGUISTIKOAREN EMAITZAK

Aniztasuna bigarren bertso-boomaren ezaugarri

#2.638 | 2019/03/31 | 3,90 €



**Nola arautu
geoingeniaritza, ez
manipulatzeko klima**

10 | NET HURBIL



**Gizon erasotzaileekin
lanean zigorretik
harago**

28 | JABI ARAKAMA



LARRUN
GLADYS DEL ESTAL
**Eguzkiaren alaba
hil ziguten**

“Blogak testutik harago”

JARDUNALDIA

APIRILAK 4

ondoren...

SARI-BANAKETA EKITALDIA

eta mokadua

DOAN

EMAN IZENA:
www.blogetan.eus

ORDUA:
15:30 - 19:00

LEKUA:
Euskararen
Etxea (Bilbo)

Agoitz plaza 1
Metroa: San Inazio geltokia
(Lekeitio irteera)

Sarrera

Ioar Oteiza (komunikazioan aditua): komunikazio digitala; blogak, sare sozialak eta azken joerak.

Dena ez da testua

- Tania Arriaga (EHU/UPVko irakaslea): Podcast.
- Esti Beraza (Mondragon Team Academy) eta Aare Castilla (TaZebaEz Kolektiboko kidea): Visual Thinking.

Lizentzia libreak

- Gorka Bereziartua (ARGIAko kazetaria): Creative Commons.

Berrikuntza betikoa oinarri hartuta

- Hedoi Etxarte (Katakrakeko kidea): Katakraak proiektua.
- Imanol Epelde (Blogaria eta irakaslea): Bideo-blogak.

ANTOLATZAILLEA:

AZKUE
FUNDAZIOA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS MENDOZA
- 18 | ANE ABLANEDO LARRION
- 19 | MIKEL BASABE KORTABARRIA
- 19 | EDU ZELAIETA ANTA
- 20 | AINHOA AZURMENDI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENETAKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: AMAIA IZAOLA
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

34 | IÑAKI ETXELEKU

Bretainiako ZAD autonomia proiektuari buruz liburua idatzi du. Mikel Asurmendi berarekin mintzatu da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Geoingeniaritza nola arautu erregai fosilen ugazabek klima are gehiago honda ez dezaten

Pello Zubiria Kamino

12 | MARI MAR AGÓS

"Liburutegi inbertsonalaren eredua ari dira bultzatzen, eta ni ez nago ados"

Reyes Ilintxeta

22 | KULTURA

Bertsolaritzaren ikerketa soziolinguistikoa: Bigarren boom aroa

Irati Majuelo Itoiz

28 | JABI ARAKAMA URTIAGA

"Emakumeek lan ikaragarria egiten dute, eta gizonok beste behin eroso gaude, kanpotik begira"

Zigor Olabarria

32 | AITOR ALTUNA, EDURNE GONZALEZ

"Programatutako udalekua baino zailagoa da udaleku parte-hartzailea aurrera eramatea"

Mikel Garcia Idiakez

44 | KULTURA

Gutariko bat: eta zarataren ernamuina

Jon Urzelai

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amalia Fernández, Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da
Argia honako enpresek inbentarioa:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)





Artea irekita

ARGAZKIA | **DOSPORDOS**
TESTUA | **AXIER LOPEZ**

Mundu honetan mugarik ezagutzen ez duen bakarra kapitala dela dirudi. Gainerako kontuentzat araudi, kontrol, debeku eta zentsura neurriak non-nahi eta nola-nahikoak dira. Ikuspegi honen beste lagin bat erakutsi du Eusko Jaurlaritzak azken egunotan: urtean 12 kultur emanaldi egiteko muga ezarri nahi zien taberna eta areto txikiei. Zorionez, inorekin adostu gabeko dekretua iragarri bezain laster, kultur-gileek osatutako Arteak Ireki plataforma abian jarri zen. Eta hara non, agintariak, aste gutxiren bueltan, atzera egin behar izan dute protestek eraginda. Larunbatean Arteak Irekiko lagunek Euskal Herriko hamaika herritan askotariko kultur adierazpenak kalera atera dituzte dekretuaren aurka. Protesta zena, garaipen zaporeko egun bilakatuta. Irudian: Ziakhus, Krudo eta R Selektah Gasteizko Orbain aretoan.

'Juan Carlos I' Espainiako Armadako hegazkin-ontzirik handiena Getxon izan da



PERTSIAR GOLKOAN
MANIOBRAK EGIN ETA
GERO GURERA BISITAN
DATORKIGUN GERRA
ONTZIAK HEMEN NORK
AGINTZEN DUEN ERAKUTSI
NAHI DIGU, ETA BOTEREAREN
KONTRA ALTXATZEAK EKAR
DITZAKEEN ONDORIOAK
ARGI UTZI

Algortatik Hanka



"JUAN CARLOS I" ONTZIA
BISITATZEN DUTENEAN,
SEME-ALABEI AZALDU
DIEZAIETELA GURASOEN
HILTZEKO ERAIKI DEN
MAKINA BAT DELA

@PiggyPorkins



EUSKAL HERRIAN DAUDEN
MILAKA ESTATUKO
SEGURTASUN INДАРREKO
KIDEEKIN, MILITARREKIN
ETA HAIEN SENIDEEKIN
BAKARRIK, ERRAZA DA
ITSASONTZIA IKUSTEKO
HAINBESTE JENDE BILTZA

@auxpoa



BI ERREALITATE ASTEBURU
HONETAN: 60.000 PERTSONA
GAZTE ATXILOTUEKIN
SOLIDARIO ALTSASUN,
10.000 ARMADAREN
GERRA-ONTZIA BISITATZEN
GETXON. ZE ERREALITATE
JARRIKO DUTE LEHEN
PLANOAN ESTATUKO
HEDABIDEEK? ATERAKO AL
DITUZTE GERRA-ONTZIAREN
AURKAKO MOBILIZAZIO
ANTIMILITARISTAK?

@JuanJoseCelorio



ALTSASUKO GURASOAK

Altsasuko gazteei babesa

EUSKALERRIA IRRATIA

Euskal Herritik eta Espainiako Estatutik etorritako dozenaka milaka pertsonak Altsasu kolapsatu dute, Espainiako Auzitegi Nazionalak berretsitako gazteen epaiari arbuioa erakutsi eta Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko. Herriak inoiz bizi izandako manifestaziorik handienean -60.000 lagun, Altsasuko Gurasoen arabera-, gazteen askatasuna ere eskatu zen. Euskal Herritik kanpo etorritakoen artean nabarmendu ziren katalanak, baina Espainiako Estatu osoko jendea zegoen.

Altsasuko Gurasoen hitzetan, Auzitegi Nazionalak erakutsi du "egia arbuiatzen duela, justizia arbuiatzen duela, eskubide zibilak eta berme prozesalak arbuiatzen dituela". Auzitegi Nazionalak "Salbuespen Auzitegiaren" papera egin eta Nafarroako auzitegiari zegokion kasua bereganatu duela ere gogoratu dute. "Irregularitasunez beteriko epaiketa batean, Guardia Zibila nonahi agertzen da: epaimahaiarekin harrerana, akusazio partikular gisa aurkeztua, perito gisa aritua, testigantzak jaso aurretik txosten egile bezala...".

Herriak jasan duen okupazio militarra salatu dute eta epaiaketaren kutsu politikoa gogoratu. "Argi dago epaia interes politikoen ondorioa dela. Komunikabide batzuek lagundurik, fikziozko errealitatea asmatu zuten, zeinak, sorturiko sufrimenduaz gain, giza ondorio larriak eragin dituen: epai eredugarriak, 6 urtetako kartzelaldi prebentiboak, diskriminazio ideologikoen ondoriozko kalteak...".

Altsasukoak Aske plataformaren hitzetan "gero eta argiagoa da" epaiketan horren atzean zer dagoen: "Krudelak dira, min eragiten digute eta sufrimenduan sakondu egiten dute, baina irabazten ari gara eta gaur, hemen, ikusten eta entzuten ari gara ozen eta argi berriz ere. Oraingoan duintasuna, egia eta askatasuna gailentzen ari dira". Preso aurkitzen diren gazteei "besarkada eta txalo-zaparrada" bidali diete.

Dena den, Altsasukoak jakitun dira ez dela soilik gazte hauen askatasuna jokoan dagoena. "Badakigu muntaia honek interes hedakorrak ezkututzen dituela eta beste muntaia batzuk elikatu nahi dituela. Badakigu ere, lanean eta mobilizazioan bi urte baino gehiago eman eta gero, zailagoa dutela. Hala ere, ezin gara lasaitu. Ezinbestekoa da justizia aldarrikatzen jarraitzea, ezinbestekoa da erne egotea, ezinbestekoa elkartasuna, ezinbestekoa mugitzen jarraitzea".

GAIZKI ERRANKA

EAJren azentua



SANTI LEONÉ

Wikipedian paratzen du ezkertiarra eta errepublikazalea dela, eta sozialismo demokratikoa defendatzen duela. Publico.es egunkari digitalaz ari naiz. Albisteak ez ezik, blogak ere badituena. Strambotic du izena horietarik batek. Joan den ortzilaréan, egileak, Iñaki Berazalucek, “EAJren azenturik” *ba ote da, bada?* izeneko artikulutzarra egin zuen. Zorrotza eta irri-emangarria, izenburutik hasita. Zuk, irakurle, oraindik graziazirik ez badiozu ikusi, hona euskaraz ekarri dudalako izan da. Begira en erdaras: “*Existe el ‘acento del PNV’, pues?*”. Pues hori ez al da irri ajataka hasteko modukoa? Serio oraindik? Igual ez duzu umorerik, *ahí va la ostia*.

Teorian politikari jeltzale erdaldun batzuen itxurakeria salatu nahi duen testua den arren –izan baden itxurakeria: gogoan dut ETB2ko tertuliakide bat Azkuna zena goraipatzen, honek *debalde* erraten zuelako–, akabera euskara bera alferrikako hizkuntza gisa aurkeztzen zaigu, eta haren erabilera hipokriten konspirazio erraldoi baten ondorio lotsagarria.

Blogeroak nori galdegin dion, horrek ere badu munta: bertzeak bertze, Eduardo Laporteri eta Javier Ancini. Navarra.comeko kolaboratzaileak, biak. Euskara batua, asmakizun bat, argitzen digu Laportek; euskara, oro har, iraganekeo exotismo hutsa, Ancinek. EAJren azentua aski ez, eta, jakina, Batasunaren azentua ere aipatu dute. Hor ere, itxurakeria nagusi. Beren artean, erdaraz egiten dute, lau esaldi kenduta. Ni neroni, erran beharrik ez da, erdaratik ari naiz itzultzen zutabe hau, neke handiz.

EAJren azentua: Bilboko politikari batzuen jarrera inkoherentea salatzeke-edo, panfleto eskuindar bateko bi zutabegileri nafar unionismo zaharminduenaren topikoak errepikatzeke aukera eman die ezkertiarra omen den *Públicok*.

Irakurle, Espainian baino hobeki, non egonen gara? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

“GREBEN KONTU HAU ESTRATEGIA BAT DELA USTE DUT”

MARKEL OLANO, GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA

Tabakalerako Ubik sorkuntza liburutegiko lan gatazkari buruz aritu da Olano: “Hauteskundeak ateetan daudela greben kontu hau asko ari da indartzen Gipuzkoan eta nik uste dut hori, azkenean, dela estrategia bat”. Gauza jakina da, ordea, Ubikeko bitartekarien greba ez zela hasi hauteskundeek baldintzatutako giro batean; azaroan egin zituzten lehenengo lanuzteak. “Erakundeen kontrako jarrera bortitzak, irainak” ere aipatu zituen Olanok, baina Ubikeko bitartekariak ez dute indarkeriarik erabili. **2019/03/22**



Macronen bolborategia



JUAN MARI ARREGI

Jaka Horien mobilizazio soziala Frantziako Estatu osoan zabaldu da, baita Ipar Euskal Herrian ere, eta Macronek gidaturiko gobernuaren politika hankaz gora ari da jartzen. Baina orain, arriskua dago herri sektore horiek mahairatu duten sakoneko problemari soilik errepresioz erantzuteko. Jaka Horien matxinada azaroan lehertu zen. Protesta hasiera batean erregaien prezioaren igoeraren kontra zen, baina laster bildu zituen beste aldarrikapen batzuk: erosteko ahalmena hobetzea, zergak gutxitzea, Macronen dimisioa, sistema aldatzea... Frantziako presidentek “nazio eztabaida handia” deitu zuen gauzak lasaitu nahian. Baina eztabaida amaitu eta biharamunean, martxoaren 16an, 10.000 jaka horidun Parisen manifestatu ziren eta “komertzioak, kioskoak eta erakusleihoak hausteko ekintza biolentoak” gertatu ziren.

“Talde biolento” horiek aitzakia hartuta, Macronen erantzuna izan da toki garrantzitsuenetan manifestazioak debekatzea, hala nola Parisko Eliseo Zelaian, Bordeleko Pey-Berland enparantzan eta Okzitaniako Tolosako Kapitolio plazan. Macronen arabera ekintza “kriminalak” dira eta gobernuak “indartsua” izan behar du horien aurrean. Kalearen jabe sentitzen du bere burua, eta errepresioaren bidea hautatu du matxinada sozialaren eragin globala eragozteko.

Gobernuko edozein presidentek bezala, Macronek ondo daki gatazka soziala konponduko dela aldarrikapenak asetzeko elkarrizketaren bidez. Kalearen jabe egitea, mobilizazioak gune nagusietatik at bidaltzea eta matxinadaren fokua jartzea “talde biolento” horiengan soluzioak atzeratuz, egoera larritu eta bolborategi bilakatzea da. Errepresioa ez da bidea. ●



Manuel Estomba parkea, falta (ez) zena

URKO APAOLAZA AVILA

Irunen Manuel Estomba apaizaren izena daraman parke bat dagoela ohartarazi zuen ARGIAk duela aste pare bat. Derioko seminarioan zuzendari espiritual zela, adingabeei sexu-abusuak egin zizkien, orriotan (2.635 zk.) argitara emandako lekukoaren arabera. Bere bulegoan zakila aterarazi eta ukituak egiten zizkien ikasleei, “higiene genitala” aipatuz.

Estombak euskarazko hainbat liburu idatzi zituen eta euskal literatur aldizkarietan kolaboratu zuen. Gainera, Hego Amerikan misiolari ere ibili zen –ez dakigu bere kabuz joan zen edo bidali egin zuten Derioko gehiegikeriak estaltzeko-. Seguruenik curriculum hori kontuan edukita jarri zioten sorterrian bere izena parke bati 1985ean, baita Ekuadorreko Machala hirian kale bati ere.

ARGIAk kasua azaleratu ostean, Bilboko Gotzaindegia aitortu du barne ikerketa baten bidez hiru apaiz abusatzaile identifikatu zituela iaz –denak hilak– eta publikoki adierazi behar izan du Estomba zela horietako bat. Hala, Irungo EH Bilduk parkeari izena aldatzeko eskatu du, “sexu-gehiiegikeriak jasan zituztenengatik”. Bistan da eman beharreko pausoa dela, eta lehenbailehen.

Afera honek beste behin agerian utzi du kale-izendegia ez dela inondik inora kontu aseptiko eta iragazgaitza. Lehen idazle miretsia zena orain apaiz pederasta izan daiteke, lehen itsas adelantatu zena orain genozida. Etengabe begiratu beharrekoa da, errebisionismo hutsean erori gabe, baina izen batek inoren eskubideak eta duintasuna zapaltzen ez dituela zainduz.

Izen batzuk edo besteak jarritz irakurketa historiko bat egiten ari baikara. Zenbat pertsonaia laudatzen ditugu izan zirenagatik eta ez egin zutenagatik? Bereizketa sozial bat ere egiten dugu plakaz plaka, kalez kale. Zer pentsatu behar dute Irungo haurrek, euren herriko kaleetan emakumezkoen izenik apenas dagoela ikusita?

Askok dira falta direnak. Badaudenak, aldiz, borroka askoren ondoren jarri dituzte, aste honetako Larrun-en dakarkigun Gladys Del Estal donostiarrarena kasu. Egia auzoko Gladys Enea parkea ofizial egin beharrean pasabide bati eman diote ekintzaile ekologistaren izena. Baina hori apenas ezagutzen du inork, are gutxiago Tuteran, hil zuten hirian kale bat duenik ere. “Existitzen da, baina ez da existitzen”, esan digu Karlos Irujo antropologoak; Google Mapsek berak ere ez du ezagutzen eta beste izen bat erakusten digu harenaren orde. ●



SOTO, 2019KO NAFARROAKO TXAPELDUNA

IRUÑEA. 1.350 lagun elkartu ziren Iruñeko Anaitasun, 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala bertatik bertara jarraitzeko. Joanes Illarregi, Xabier Terreros, Xabi Maia, Julen Zelaieta, Xabat Illarregi, Eneko Lazkoz, Julio Soto eta Eneko Fernandez lehiatu ziren azken hitzorduan, eta Gorritikoa izan zen garaile. Bosgarren txapela eskuratu du, Eneko Lazkozekin buruz burukoa jokatu eta gero. Bertsolaritzaren alde lan eskerga egin duen Joxema Leitzak jantzi zion txapela irabazleari (irudian).

EUKALIPTOA 500.000

hektareatik gora hartzen ditu eukaliptoak Galizian, lurrazal osoaren %17. Basoen Munduko Eguna baliatuta, deseukaliptizazio kanpaina egin du bertako hainbat elkarte: eukalipto landaketa ugari ezabatu dituzte, besteak beste bioaniztasunerako kaltegarria delako eta suteak zabaltzen laguntzen duelako.



‘Roundup’ak kantzerra eragiteagatik bigarren aldiz kondenatu dute Monsanto-Bayer

ARGIA

San Frantziskoko (Kalifornia, AEB) epaitegi batek ebatzi du Monsanto –gaur Bayer multinazionalak erosi– dela Edwin Hardeman 70 urteko nekazariak nozitzen duen minbiziaren erruduna, *Roundup* (glifosatoa) erabiltzeak eragina.

BIGARRENEZ

Bigarren zigor historikoa jaso dute Monsanto eta honen erosle berria den Bayer multinazionalak. Lehenbizikoa 2018an nozitu zuen, epaimahai batek Dewayne Lee Johnsonen minbizi lotu zuenean baratze eta soroetako belar txarrak hiltzeko erabiltzen den glifosatoarekin –komertzialki *Roundup* izenez ezaguna–.

HIRU HAMARKADATAN ERABILIA

1980tik 2012a arte erruz erabili zuen *Roundup*a Edwin Hardeman nekazariak, 22 hektareako bere etxaldean, ustez belar txar eta sasiak ihartzeko. 2015ean sendagileek ez-Hodgkin linfoma bat diagnostikatu zioten eta urtebete beranduago erabaki zuen Monsanto auzitara eramatea, korporazioari aurpegiratu mundu osoan arrakastaz saltzen duen bere produktu izarrak “informazio faltsu eta gezurtiak” eman izana.



KOMIKI FEMINISTA. *Tupus!* komiki antologia feministaren lehen zenbakiak martxoan ikusi du argia, Txalapartak argitaratua. Hamalau istorio barnebiltzen ditu eta hogeiei egilek hartu dute parte. Ikuspegi feminista ekarri nahi izan dute Euskal Herriko komikigintzara.



IDAI ZIKLOIA. Mozambique, Malawi eta Zimbababwe suntsitzen ari den Idai zikloia izan daiteke Hego Hemisferioak sekula ezagututako zikloi tropikalik gaiztoena, Munduko Meteorologia Erakundearen arabera. Klimaren aldaketak, mendetako kolonialismoak eta nazioarteko injustiziek badute eraginik.



ARRAZAKERIA. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan da martxoaren 21, eta mobilizazio eta aldarrikapen ugari izan dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Asteburuan, urteroko martxa errepikatu dute Pasaiaitik Donostiara eta eskuin muturraren igoeraz ohartarazi dute.

GEOINGENIARITZA NOLA ARAUTU ERREGAI FOSILEN UGAZABEK KLIMA ARE GEHIAGO HONDA EZ DEZATEN

Nazio Batuen Erakundeak batzar berezia egin zuen Nairobín, Kenya, martxoaren 11 eta 15 artean, klimaren geoingeniaritzaren gobernantzaz arau berriak adosteko. Negoziaketak, ordea, aurrez blokeatuta zeuden eta luzaz proposamena landua zuen Suitzak berak atzera egin zuen azkenean kutsatzaile handienek bidea itxita. Klima aldaketa geoingeniaritzaz konpontzeko esperimenduak mundu mailan arautzeko dagoen ezintasunaren adierazgarria izan da Nairobikoa.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Alainet agentzia bidez zabalduko albistea, ETC mugimenduak honela titulatu zuen: “*Petrolio gehien ekoizten duten herrialdeek, kutsadura gehien isurtzen dutenek, blokeatu dute NBEn geoingeniaritzaren gobernantza*”. Nazio Batuen Ingurumen Programa (NBIP) baitan Kenyako hiriburuan egindako biltzarraz ari zen; huts egin zuen potentzia handiak garatzen ari diren geoingeniaritzaren arriskuentsakoa araudia zorrozteko ahaleginean. Gertatu zen justu klimaren inguruko kezkak mundu osoan, Greta Thunberg gazte suediarri jarraiki, mobilizazio handiak eragin behar zituen bezperan.

ETC taldeak –teknologia berriek eta multinazionalen estrategiek bioaniztasunean, nekazaritzan eta giza esku-bideetan dauzkaten eraginen jarraipena egiten duenak– honela laburbiltzen du zer den ingurumen geoingeniaritza: “Eskala handiko teknologia multzo bat da klima manipulatzeko proposatzen ari direna, bai negutegi eragineko gasak atmosferatik berreskuratze edo bai planetako tenperaturak hozteko ere. Teknologiok ez dituzte ukitzen klimaren aldaketaren sakoneko kausak baina handiago egiten dute ekonomiak erregai fosilekiko daukan menpekotasuna”.

Geoingeniaritzaz orain artean gehien iraun duen nazioarteko hitzarmena Aniztasun Biologikoari buruzko Ituna da, horren baitan burutu dira 2007tik gaurdainoko negoziaketa guztiak. Esaterako, 2008an Londresen sinatu zen itsa-

soa ongarritzea –aurrerago azalduko duguna– debekatzeko erabakia, 2013an lege bihurtu zena. Hala ere arauak atea zabalik uzten die ikerketa zientifikorako esperimenduei eta orain horien kontrola zorroztea ere lantzen ari ziren, ingurumenaren geoingeniaritzaren beste zenbait atalena bezala.

Burkina Faso, Mikronesia, Mali, Mexiko, Montenegro, Niger, Georgia, Senegal eta Hego Koreak sustatu dute hasieratik Suitzak geoingeniaritzazko teknologien arautzeaz –bereziki karbono dioxidoa erauzi eta metatzeaz eta eguzkiaren erradiazioak kudeatzeaz– aurreratutako proposamena, baina bi arerio gogorrek blokeatu dute: Saudi Arabiak eta AEBek, Brasilen laguntzarekin. Energia fosilen ekoizle handienek, hain zuzen.

Nazioarteko Ingurumen Legearen aldeko Zentrotik (CIEL, ingelesezko sigletan) Carroll Muffetek honela iritzi dio gertatuari: “Norbaitek uste badu kutsadura handia sortu eta petrolio ekoizten duten herrialdeak prest egon daitezkeela klima manipulatzeko teknologia berrietan gobernantza arauak onartzeko, AEBek eta Saudi Arabiak egindakoak ohar moduan balio beharko lioke: ez dute horrelako kontrolik onartuko baldin eta beren betiko negozioei oztoporen bat badakarkie. AEBek, geoingeniaritzazko ikerketa eta esperimenduen bultzatzaile nagusietakoa denak, ez du nazioarteko behaketa mugatu bat ere onartzen”.

Bitartean, geoingeniaritzaren arautze horren alde bultzaka segitzen du hainbat herri mugimenduk, 2018ko udazkenean “*Ez manipulat Ama Lurra*” agiria sinatu zutenek. Via Campesina, ATTAC, Emakumeen Mundu Martxa, ETC... eta mundu osoko zientia bat erakunde gehiago dira sinatzaileak.

MILITARREN ETA KORPORAZIOEN ESKU

Mende bat baino zaharragoa da ingeniartza bidez klima manipulatzeko asmoa. Teknologia nagusi askorekin gertatu den moduan, hasieran arma militartzat ikertu zen, etsaia menderatzeko tresna beldurgarri bat eskuratu nahian. Baina gero eta sarriago gertatzen diren krisi klimatikoek ikerlariei proposamen berriak sorrarazi dizkiete eta gaur geoingeniaritza nagusiki klimaren aldaketari aurre egiteko tresnatzat aipatzen da... aitortu gabe ikerketa militarrek horretan daukan interesa.

Geoingeniaritzak helburutzat dauka Lurra planetaren sistemak eskala handian eraldatzea eta aipatzen du klimaren aldaketari erremedioa jarri nahia, besterik ez bada konponbide hobeak sortu artean *denbora irabazteko*.

Teknika horiek bi multzo handitan banatzen dira. Batetik daude atmosferako CO₂a murrizteko proposamenak. Esaterako, itsasoa burdina, urea eta beste elikagaiz ongarritu nahi dute, horrek ugaritu araziko lukeen fitoplanktonak atmosferako CO₂a bereganatuko lukee-

**ESPERIMENTUEN MAPA**

KLIMA ALDATZEKO
GEOINGENIARITZA PROBAK
MUNDUAN ZEHAR. TARTEAN
BADA BAT EUSKAL HERRIAN,
TXINGORRA KONTROLATZEKO.

lakoan. Teknologia horren aldagai bat litzateke itsasoko ur geruzak nahastea, hondotik azaleratuakoak ere fitoplanktona ugal dezan.

Beste teknologia sail batek CO_2 a mekanikoki harrapatu, metatu eta erabili nahi du hori isurtzen duten industrietan bertan, batzuetan (CCS) beste produktu kimiko batzuekin nahastuta petrolio ustiapenetan erabiltzeko, beste batzuetan (CCUS) produktu manufakturatuen ekoizpenean berrerabiltzeko. Beste esperimentu batzuek proba egiten dute CO_2 zuzenean airetik berreskuratu eta pilatzeko (DAC), beti ere kimika edo tresna mekaniko bidez.

BECCS motako teknikak landareak sartzen dituzte tartean, esaterako erregai fosilen ordeztan etanola ekoiztu edo biomasa erre eta ondoren aurreko tekniketako batekin bahitzeko sortutako


CO_2 a. Meteorizazio handitua deitzen diote beste teknika esperimental bati: lehorrean bezala itsasoan barreiatzea CO_2 arekin erreakzionatu eta metatuko duten mineralak, silikatoak adibidez.

Bigarren multzo ezberdinean daude eguzkiaren irradiazioen kudeaketa proposatzen dutenak. SRM motako esperimentuekin estratosferaraino hainbat produktu bidali nahi dituzte (sufre dióxidoa, titanioa, aluminioa...) eguzkiaren izpiei oztopo egiteko. Itsasoko hodeiak zurituz egin nahi dute proba beste batzuek, eguzkiaren izpiak ispiluen moduan berriro espaziorantz bideratuko dituztelakoan. Aldiz, zirru motako hodeiak saretu nahi dituzte beste batzuek, Lurrak hortik galdu dezan beroa. Eta ororen buru, badira eguraldia aldatzeko beste hainbat esperimentu.

ETC eta beste mugimenduak borro-

kan ari dira esperimentu horien kontra, arriskutsuak direlako. Teknologia horien eragin askok atzera ezinezko ondorioak sortuko lituzkete.

Klimaren aldeko benetako neurriei uko egiten dietenak sendotzen dituzte, herrialde eta korporazio indartsuenen boterea handituz. Ingurumenarentzako eta elikadura katearentzako oso arriskutsuak dira. Etorkizuneko belaunaldientzako, injustuak. Planetaren militarizazioa areagotuko lukete, termostato globala kontrola lezakeenaren alde. “Eta klima salgai jarriko lukete. Dagoeneko konkurrentzia gogorrean ari dira patente bulegoetan planetaren klimaren krisiarentzako erremedio teknikoak badaukatela dioten batzuk eta besteak. Ikara eragiten du klima aldatzeko ‘esku-bideak’ monopolio pribatu baten esku geratzeko posibilitate hutsak”. ●





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com






Mari Mar Agós

ETXEZ ETXEKO ISTORIO-BANAKETARIA NAFAR PIRINIOETAN



LIBURUTEGI INPERTSONALAREN EREDUA ARI DIRA BULTZATZEN, ETA NI EZ NAGO ADOS



Berragu Nafarroako liburutegi ibiltari bakarra da. Duela hogeit bat urte hasitako ibilbidea luzatzen eta ontzen ari da Aurizberriko liburuzaina, orain bere Biblioneta berriaren laguntzaz. Mari Mar Agós Aurizberriko liburuzaina da, eta batez ere, irakurlezaina.

TESTUA | REYES ILINTXETA
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Zergatik du *Berragu* izena zuen liburutegi mugikorrak?
Hori delako leihotik ikusten dugun mendiaren izena.

Zertan datza zehazki?

Berragu proiektua Martin Saraguetak, aurreko liburuzainak, jarri zuen abian 1998an, Pirinioetako 30 herrietako biztanleei etxez etxe zerbitzua emateko. Nik berrikuntza batzuk egin ditut eta orain norbanako erabiltzaileei zenbait kolektibo gehitu dizkiet: Erro, Auritz, Lakabe, Garralda eta Luzaide-Arnegiko ikastetxeei, Irati Irratiari, Amma Ibañeta zaharren egoitzari, Zandueta adin txikikoen zentroari eta AEK-ko euskaltegiei, besteak beste. Denera 200 bezero ditugu orain, norbanakoak eta kolektiboak kontuan hartuta.

Nola egiten duzu banaketa?

Ostegunetan ateratzen naiz banaketa egitera. Eskualde osoa lau ibilbidetan banatuta dugu eta aste bakoitzean bat egiten dut. Joan baino egun batzuk lehenago telefonoz deitzen diet

bezeroei jakiteko liburuak bukatu dituzten eta beste zer bait gehiago nahi ote duten galdetzeko. Askotan neuk gomen-dioak egiten dizkiet eta gustuko izan ditzaketen liburu eta bideoak proposatzen dizkiet.

Herri batzuetan, batez ere neguan, etxez etxe joateko beharrik ez izateko toki batean biltzen dituzte maileguak eta ni hara joaten naiz bila. Luzaiden adibidez, ile-apaindegian biltzen dituzte. Dena den, orain, furgoneta berriarekin askoz errazagoa da mugitzea.

Urtarrilean iritsi da Biblioneta. Berri ona, ezta?

Bai. Nafarroako Gobernuak 22.000 euroko dirulaguntza berezia eman digu eta guk diseinatu ahal izan dugu zer nolako ibilgailua behar genuen zerbitzu honetarako. Gure neurrira egindakoa da. Dekorazioa ere oso polita eta deigarria da eta balio du zerbitzuaren promozioa egiteko. Biblioneta iritsi zenean jende pila atera zen harrera egitera eta hurrek izugarrizko ongi etorri pankarta ederra prestatu zioten. Oso hunkigarria izan zen guztiontzat eta baita Kultura Saileko ordezkarietzat ere.

BEHIN BATEAN, HIRIKO LIBURUTEGI HANDI-HANDIAN...

“Ni beti landa eremuko liburuzaina izan naiz. Behin, formakuntza ikastaro batean, egokitu zitzaidan Nafarroako Liburutegi orokorrean jendaurrean aritzea. Ostiral arratsaldea zen eta ikaragarritzko jendetza zebilen liburu-maileguan. Harrera-mahaian nengoela, gure lana supermerkatuko kutxazainena iruditu zitzaidan, bizi-bizi maileguak egiten, jendeari kasik begiratu gabe. Orduan, nire modura aritzea erabaki nuen: ‘Kaixo, zer moduz zaude...’, esanez agurtzen nituen bezeroak eta bere izenez deitzen nien, txartelean izena agertzen delako. Eta galdetzen nien ea itzultzen ari ziren liburuak haien gustukoa izan zen edo ea estilo horretako beste bat nahi ote zuten. Nobedade interesgarriak komentatzen nizkien edo laguntzarik behar ote zuten galdetu, adibidez, liburuaren erreserbak on-line egiteko.

Nire ondoan zegoen lankideak esaten zidan azkarrago ibiltzeko ilara ikaragarria sortzen ari zelako nire postuan. Ilara gero eta gehiago luzatzen ari zela ikusita erabiltzaileei eskatu zieten beste postuetatik pasatzeko. Baina hura sorpresa! Nire ilara luzeko pertsona bakar bat joan zen. Beste guztiek esan zuten nirekin nahiago zutela. Nik uste dut jendeak eskertzen duela zerbitzua ez horren hotza izatea, egiten ari ginen ikastaroan kontrakoa esaten baziguten ere. Han zioten erabiltzaileek autonomoak izan behar dutela eta ez dutela langileen laguntzaren menpe egon behar. Areago, ez dela harreman zuzenik izan behar bezeroekin. Nik azaldu nien erabat kontrakoa egiten dudala, izan ere, etxez etxe joaten naiz liburuak eramaten. Jarrera hotz hori ez dut ulertzen”.

Mari Mar Agós Díaz

IRUÑEA, 1974



Ikasketaz kazetaria eta bokazioz liburuzaina, Erronkariko eta Beraiko liburutegietan aritu ondoren, duela sei urtez geroztik Aurizberriko liburuzaina da. Pirinio aldeko liburutegi txikian 3.000 pertsona ingururi ematen die zerbitzua bai haren egoitzan, bai etxez etxe liburutegi mugikorraren bidez. Sari garrantzitsuak jaso ditu: 2016an 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien proiektu onenaren Espainiako María Moliner Saria, 2017an Espainiar Estatuko liburutegi mugikor onenaren saria, eta iaz Irakurketa Sustatzeko María Moliner Sarian accesa lortu zuen. Urtarrilean beste berri on bat izan dute: Biblioneta. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez liburuak etxez etxe banatzeko ibilgailua dute orain.



Orain arte nola egiten zenuen banaketa?

Nire auto zahartxoarekin, ahal nuen moduan. Baina, tira, behin baino ez dit hutsik egin.

Pirinioetan neguak oso luzeak izaten dira. Elurrarekin zer moduz moldatzen zara?

Lehenengo neguan gogoratzen dut elur geruza ni baino altuagoa zela. Argindarra joaten zen maiz eta nik ibilialdiak eta bezeroak ez nituen ongi ezagutzen. Hemengo herrietan, adibidez, kale izekak eta abizenak baino gehiago etxeen izenak erabiltzen dira, eta gainera, jende askok ezizenak ditu, eta aldiz, nik fitxetan izen-abizen ofizialak baizik ez

nituen. Hori dena ezagutzea kosta egin zitzaidan. Bestalde, negu minean ibilaldiak batzuetan eguraldiaren arabera antolatzen ditut: Luzaidekoa eta Aezkoakoa gogorrenak dira. Elur asko dagoenean beste aste baterako uzten ditut eta Artzibar edo Erro aldera joaten naiz.

Zenbat kafe hartzen duzu banaketa egunetan?

Lehen urtean ez nintzen ezetz esatera ausartzen eta asko eta asko hartzen nituen. Orain ikasi dut eta ez horrenbeste, baina zerbait beroa beti eskertzen da batez ere egun hotzetan. Ni oso gustura joaten naiz jendearengana eta haiek haien etxean hartzen naute amultsuki. Txarrena da oso denbora gutxirekin

5.700 BIZTANLE NAFAR PIRINIO OSOAN

“Nafarroako Liburutegien legeak dio 3.000 biztanle baino gehiago behar direla liburutegi publikoa izateko. Guk hiru bailara behar ditugu kopuru hori lortzeko: Erroibar, Artziabar, Aezkoa eta zenbait herri: Auritz, Orreaga, Orotz-Betelu eta Luzaide-Arneki.

Erronkariko liburutegian Erronkari eta Zaraitzuko biztanleak hartzen dituzte, denera, 2.700 inguru. Ez dira 3.000ko gutxiengora iristen, baina zerbitzua mantentzen da oso garrantzitsua delako eta, gainera, liburutegi hori Nafarroako zaharrenetakoa delako. Espainiar Estatuan, hala ere, legea are zorrotzagoa da, han 5.000 biztanle izan behar dira”.

MAILEGUAK BAINO ZERBAIT GEHIAGO

“Liburuzainok, maileguez gain, beste zeregin bat badugu. Gure bezeroek gauza gehiago eskatzen digute. Azken finean, ia dena dago interneten eta guk lortu behar duguna da liburutegiak kultura zabaltzeko tokiak izatea. Jarduerak, ikastaroak, solasaldiak, jokoan bidez hurbildu liburutetara... irakurketa beste ikuspuntu batetik begiratzeko moduak eskatzen dizkigute. Hori da gehien baloratzen dutena, eta ez horrenbeste liburu gehiago edo gutxiago izatea. Horregatik saiatzen gara, gero eta gehiago, haiengana bideratutako ekimen berritzaileak antolatzen”.

joaten naizela, beti presaka. Haiek oso lasai egoten dira eta hitz egiteko gogo, eta ni alderantziz. Nik uste dut hori hobe behar dugula, jendeari denbora gehiago eskaini ahal izateko.

Murrizketen ondorioz jaitsi behar izan genuen banaketarako ordu kopurua, baina orain zuzendari orokor berriarekin ordu kopurua handitu ahal izan dugu, egoitzako ordutegia mantenduz.

Nabari da gustuko duzula landa eramuko liburuzaina izatea.

Bai. Izugarri. Hona etorri baino lehen lau urte eman nituen Erronkarin eta oposizioak gaindituta Berako plaza lortu nuen. Han izan nintzen hemen zegoen liburuzainak Iruñean dagoen Nafarroako Liburutegirako leku aldaketa eskatu zuenean. Hemen jendearengandik oso gertu nago. Pertsonalki eta profesionalki oso aberasgarria da eta nik uste dut liburuzain guztiek esperientzia honetatik pasa beharko luketela.

Ene irudiz liburutegien zerbitzuetatik liburutegi inbertsonalaren ereduari ari dira bultzatzen, eta ni ez nago ados. Aitzitik, liburutegi sozialari garrantzia eman nahi diote taldeetan irakurketa sustatzeko. Nik uste dut halako tratu gertukoa eman beharko geniokeela jende guztiari, eta arreta ez jarri soilik kolektiboetan.

Bestalde, lanbide honetan malgu-

tasuna ere beharrezkoa dela uste dut. Abaurregainatik etortzen bazait bezero bat hogeita piko kilometro eginda ez dut esku hutsik bidaliko liburutegiko txartela ez duelako ekarri.

Bokazioa izatea oso garrantzitsua da eta gaur egun herrietako liburutegi txikietan proiektu oso politak egiten ari gara.

Liburutegiak zer ematen dio herri txiki bati?

Liburutegia topagunea da. Arratsaldeetan neguan ez da beste ezer irekita eta jende asko etortzen da liburutegira. Musika eskolara, pilotalekura edo den-dara etortzen direnak, hemen lan egiten dutenak eta haurrak etortzen dira, gehienbat. Hemen oso gustura gaude, goxo-goxo, eta mota askotako jarduerak egiten ditugu hel-du zein txikientzat: informatika ikastaroak, ipuin-kontaktak, hitzaldiak...

Beste liburuzain batzuk kexatzen dira liburutegi handietan antolatzen dituzten gauzetara jende gutxi joaten delako. Hemen kontrakoa. Hemezortzi aulki ditugu eta askotan 40 pertsona baino gehiago biltzen dira.

Dirurik ez dugunez, normalean zonaldeko pertsonak, elkarteak eta kolektiboak gonbidatzen ditugu tailerrak eta hitzaldiak musu-truk ematera. Batzuetan idazleak etortzen dira haien liburuak aurkezpenak egitera.

Liburutegi honetan Pirinioetako gaiak ageri dira irakurrien artean, Dolores Redondok baino askoz arrakasta handiagoa dute

T A P U N T U
nortasuna sareratuz

Helbide aldaketa!

2018ko abenduaren 13an ospaturiko Batzar Orokorrean erabaki gisa, TaPuntu Koop. Elk. Txikiak, bere helbide soziala aldatu du: Florida 28 kaletik, Gabriel Zelaia eraikina, 20120 Hernani (Gipuzkoa), Zubiaurrenea 6 kalerara, 20.170 Usurbil (Gipuzkoa).

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com



Herrietan lasaiago bizi da jendea?

Umeen artean nabari da aldea hemengo haurren eta ostiraletan edo udan Iruñetik etortzen direnen artean. Iruñekoek berehala eskatzen dute wifia, tableta... ez dute hainbesteko sosegurik liburu bat irakurtzeko, margotzeko edo lasai egoteko. Hemengo internet konexioa oso mantsoa da, gainera, eta ez dute batere pazientziarik.

Herri txiki batean bizi nahi zenuela argi izan duzu beti?

Iruñekoa naiz, baina aita maisua zen eta herrietan ibiltzen zenez, ikasturtean zehar berarekin joaten ginen. Udan itzultzen ginen Iruñera. Nik hogeitau urte baino gehiago daramat hiritik kanpo bizitzen. Orain Arriasgoti-Lizoainibarren bizi naiz, zortzi biztanle dituen Urrizelki herrian. Oso lasai. Nire bikotekidea artzaina da, bere aita zen bezala, gazta egiten dugu eta beste erritmo batean bizi gara. Nafarroako Liburutegira joaten naizenean pentsatzen dut nire liburutegi txiki osoa hango komunean sartzen dela. Niretzako ez dut hori nahi.

Nolakoa da orain saritu dizueten proiektua?

"Ipuinen mendia" du izena. Istorio moduko bat egin dugu ipuin klasiko eta berrien artean. Horren inguruan egituratu ditugu urtean zehar egindako ekimen guztiak. Haien artean batzuk oso berri-tzaileak izan dira. Bat, adibidez, "Ipuinak txakurrekin" deitzen zen. Dislexia duten bi haurrek ipuinak irakurtzen zizkieten txakurrei, eta oso ongi atera zen haurrek sentitu zutelako animaliak ez zirela denbora guztian haiek epaitzen ari. Beste proposamen bat "Landarte" izan zen. Herria ipuin bateko agertoki bihurtu genuen Leire Urbeltz artistaren laguntzarekin. Bezeroak ipuin honetako pertsonaiak ziren eta teknologia berriak ipuineko magia. Oso polita izan da.

Orain beste proiektu bat dugu: "Bazen behin zortzi liburutegi" izenekoa, beste zazpi liburutegi txikirekin batera elkar-lanean egiten ari gara. Liburutegi bakoitzak prestatu du ipuin baten irakurketa gida, jarduerak eta tailerrak, eta hilabetez hilabete pasatzen ari gara liburutegi

batetik bestera. Lan kolaboratiboa da, oso interesgarria.

Zer nolako liburuak dituzte gustukoak zure bezeroek?

Urtero hamar liburu irakurrien zerrenda egiten dugu eta normalean hemen beti lehen postuetan Pirinioetako gaiak ageri dira, bertako egileak edota hemengo ohitura eta bizimoduarekin zerikusia duten lanak. Dolores Redondo baino askoz arrakasta handiagoa dute, zalantzarik gabe.

Liburuak erosterakoan bezeroen parte-hartzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Ni saiatzen naiz beti haien eskaerak betetzen. Orain berriki gure aurrekontuak igo dituzte eta hobeki gaude herrietako liburutegietan.

Zergatik da ona irakurtzea?

Liburuek, istorioek oro har, leihoak irekitzen dizkigute. Mundu asko ematen dizkigute ezagutzera. Beste ikuspuntu bat ematen digute mundua begiratzeko. ●



Iritziak

Subiranotasunik gabe ez dago demokraziarik



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Mendebaldeak gustuko ez dituen herrialdeen kontra egiteko erabiltzen dituen aitzakiak dira, demokrazia falta edota giza eskubideen errespetu eza. NATOko herrialdeak beti dira epaileak eta inoiz ez epaituak. Beraiek gutxi-asko demokrazia hauteskunde prozesu lehiakor eta garbi batera murrizten dute. Alabaina, ez dago demokraziarik subiranotasunik ez badago. Estatu batek munduko hauteskunde garbienekin gobernua hautatuko balu, ez litzateke demokrazia bat izango, baldin eta gobernuak herritarren hautua bete ahal izateko botererik ez balu.

Mendebaldeko kontroletik kanpo dauden herrialde batzuk subiranotasun gradu altukoak dira edo izateko borondatea dute, baina trukean jasan behar izaten dituzten kanpo eta barne erasoak amaigabeak dira. Barne politikan lobbyek, batez ere ekonomikoek, herriaren erabakitze eskubidea eta subiranotasuna bahitu nahi dituzte gobernuen boterea mugatuz. Agintariak oligarkia ekonomikoen aurkako erabakiak hartzen dituztenean erantzuna bortitza izaten da: gobernuaren kontrako kanpaina eta manipulazio mediatikoak, itxialdi patronalak, sabotaje ekonomikoak, gobernuaren kontrako mugimenduak sustatzea, estatu kolpeak bultzatzea eta abar.

Antzera gertatzen da kanpo erasoekin. Herrialde batzuek beste batzuen subiranotasuna mugatu eta kontrolatu nahi dute eta horretarako, aipaturiko mekanismoez

Venezuelak bizi duen eraso oso gogorra da eta ondorioak bistan dira. Venezuelar jendartearen gehiengoak erakutsi duen erresistentziarako gaitasuna miresgarria da. Kontua da noiz arte eutsi ahal izango duten

gain, gerra ekonomikoa santzioen bidez egiten dute. Helburua da herrialdean kaosa zabaltzea gobernu higitzeko erori arte edota esku-hartze militarra justifikatzeko testuingurua sortu arte.

Barne eta kanpo erasoek demokraziaren kalitatea narriatu eta giza eskubideekiko errespetua txikitu egiten dituzte; edozein gerretan gertatzen da, intentsitate altu edo baxukoak izan, konbentzionalak edo hibridoak. Berriz, subiranotasuna ez duten herrialdeetan edo beraien subiranotasuna eztabaidatua ez denetan, eta agintean dauden interesak lobby indartsuenen interesekin ondo lotzen direnean, ez daude argindar mozketak, sabotajeak, santzio ekonomikoak eta kaosa. Horrela, errazago da noski, giza eskubideak eta hautaketa prozedura lehiakor eta garbiak mantentzea.


Horregatik, herrialde subalternoetara gobernu soberanistak edota ezkertiarak iristen direnean lehen aipaturiko erasoak jartzen dira martxan. Batzuetan presioa eta mina hain da handia azkenean jendarteak amore ematen du sufrimendua geratze aldera. Horregatik, 1990eko Nikaraguako hauteskundeak sandinismoak galdu zituen, AEBek esana zuten Violeta Chamorro irabazi ezean hauteskundeak ez zituela demokratikotzat onartuko eta beraz, gerra ekonomikoak eta armatuak jarraituko zuketzen sufrimendu gehiago barreiatuz.

Venezuelak bizi duen eraso oso gogorra da eta ondorioak bistan dira. Venezuelar jendartearen gehiengoak erakutsi duen erresistentziarako gaitasuna miresgarria da. Kontua da noiz arte eutsi ahal izango duten. 1990eko Nikaraguako agertokiarekin amesten dutenek hauteskundeak nahi dituzte gerra batean, jendeak amore eman dezan sufrimendua arintze aldera. Bitartean, ustezko ezkertiar eta demokrata askok venezuelar autoritarismoa kritikatzen jarraitzen dute ulertu nahi gabe venezuelar demokraziaren arrisku nagusia bere subiranotasunaren aurkako eraso dela. Askoz gutxiagotatik Mendebaldeko herrialdeek giza eskubideak eta demokrazia higitzen dituzten salbuespen legeak onartu dituzte "arriku" baten aurrean, baina inork gutxik izendatu ditu herrialde hauek autoritarioak. ●

Zapalduaren pedagogia



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Azkenaldi honetan kezkatuta nabil, gure arazo nazionalari buruz euskal ikastetxeetan eskaintzen den ikuspegia zein ote den. Kontatu didaten zenbait gertakariren arabera, horra ere iritsi omen da gure artean nagusitzen ari den epelkeria ideologikoa, eta nire ustez bederen oso kezkatzekoa da. Badakit ohikoak direla “Euskal Herria ez da herri menderatua” edo “hemen, Espainian” bezalako baieztapenak, baina irakasleon ahotik ere horrelakoak entzutea, urrats arriskutsua iruditzen zait gure haurrak asimilatze prozesuan, jakintza eta egiaren ordezkariak garelako ikasleen begietara.

Ikastea gure inguruko errealitatea ezagutu eta ulertzeari esaten baldin badiogu, irudikatzen ahal den ekintzarik politikoena da heziketarena. Izan ere, haurrek deskubritu ahal izan dezaten helduoi dagokigu lehenago mundu hori ezagutzera ematea. Eta munduaren zein zati erakutsiko dugun erabakitzea hautu erabat politikoa delako, noski. Bizitzaren arlo gehienetan bezala, heziketan ere ez dago kokaleku neutrorik.

Paulo Freirek esan zuen nork bere errealitatearen irakurketa eta interpretazio egokia egiten ikastea dela haurren benetako alfabetizazioaren muina. Eta

Zapalduaren pedagogia liburu ezaguna idatzi zuen, ongi zekiela zapalkuntza biktimoak garelako gure errealitatea ongi ezagutzeko eta eraldatzeko behar handiena dugunak, askapena bera dugulako jokoan.

Ez da posible heziketa neutroa izatea. Inon, inoiz eta inorentzat. Baina zapalkuntza egoeretan da bereziki arriskutsua hori horrela dela ez jakitea eta jarrera ekidistantea izaten ahal dugula pentsatzea, oinarrizko eskubideak urratuak direnean oso handia delako hezitzaile gisa hartzen dugun jarreraren inplikazioa. Horixe da euskal irakasleon kasua, gure herria menderatua delako, eta autodeterminazio-eskubide funtsezkoa urraturik edukita, egiturazkoa delako pairatzen dugun zapalkuntza.

Euskal haur eta gazteak okupaziotan errealitatean bizi dira, sahararrak edo palestinarrek bezala. Zapalkuntza hori izendatzea eta salatzea, edo kamuflatzea eta naturalizatzea, irakasle bakoitzak hartu beharreko erabakia da, baina biak ala biak dira hautu politikoak, inor ez dadila ustezko neutralitatearen babesean ezkuta.

Ematen du sinetsi egin ditugula askatasuna norbanakoaren esku dagoela edo demokrazian bizi garelako bezalako

ziriak, ikusezin bihurtu baita bat-batean menderakuntza. Orain, gugandik urrun diren errealitateak izendatzeko baino ez omen da jada inperialismo hitza gure ikasgeletan erabiltzen; diferenteen arteko elkarbizitza bezala interpretatzen da okupazioa, eta kultur-aniztasunaren baloretzat saltzen zaigu kolonizazio beti monokromatikoa.

Jakin dezala euskal heziketak ezin diola bere herriaren arazo politikoari ezikusia egin. Bere definitzaileak euskara eta euskal kultura baizik ez direla adieraztea komeni zaiolakoan zapalkuntza arazoa ikasgeletatik erauztea ez da batere erabaki zuzena. Okerra da, ezkutatu nahi den zapalkuntza horren beharra duelako hizkuntza normalizazioak. Inozoa, espainolek eta frantsesek hemen duten hegemoniaren jatorri politikoa ez azaltzea gure errealitate gordina naturalizatzea delako.

Baina, denaren gainetik, injustua da: zapaltzaileen erruduntasuna eta ardura zurituta, ikasleak izendatzen dituelako euskararen alde egin beharko luketen hautuaren erantzule bakar. Harritu egingo gara gero gaztetxoek hizkuntza-ohiturak eta nazio-atxikimendua guk aurreikusi bezalakoak ez direla jakitean. Hara, zerk huts egin ote du? ●



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Dagokion hizkuntzan

Horrela. Segurtasun juridiko horrekin zehaztu du Hezkuntza Sailak maisu-maistra oposiziogileek zein hizkuntzatan egin beharko dituzten euren azterketak: “Dagokion hizkuntzan”. Ze demontre esan gura du horrek? Oposiziogileek, orain arte bezala, gaztelaniaz egin ahal izango dituztela azterketak? Eta programazio didaktikoa? Zehaztu dute programazio hori *pdf*, *Libre office 6* edo *Microsoft office 2016* formatuetan ematea egongo dela; zein hizkuntzatan ez diotenez, libre bide da euskaraz nahiz gaztelaniaz idaztea.

Badirudi Hezkuntza Sailak noraezean jarraitzen duela. Edo koldar. Edo biak.

Iazko ekainean *Hezkuntzaren aldeko akordioa* aurkeztu zuen. Horretan zioen irakasle asko ez dagoela eroso bere euskara-mailarekin, eta laguntza emango ziela, batez ere ahozkoan, C1+ maila lor zezaten. Hizkuntzez ari zela, haxe ere bazioen: “Hezkuntza sistemara sartuko diren irakasle berrien profila zehaztuko da (...)”.

Hain justu, aurtengo oposizio-deialdian egin ez duena: irakasle berrien profila zehaztu. Jarraitzen du nahikoa izaten noizbait ateratako C1 maila aurkeztea: pentsa, duela 35 urte balio zuen D tituluak ere balioko luke! Ez hori bakarrik: 1993an ordezeko irakasle zen norbaitek

lortuko balu plaza 2019an, hiru urteko epea luke euskaraz ikasteko. Beraz bai, oposizioa gaztelaniaz egin ahal izango da. Baita ahozko proba ere.

2017ko deialdian bezala: berdin -berdina.

2018ko *Hezkuntzaren aldeko oinarriak* inoiz idatzi izan ez balira legez.

Eta horrela, gauzak berdin-berdin eginda, Hezkuntza Sailak oinarri berriak jarri gura ei ditu: hezkuntza-sistema aldatu, ikasle eleanitzak lortu eta, derrigorrezko eskola-aldia amaitzean, euskara-maila B1etik B2ra igo. Eta bla.

Hori guztia, irakasle berriek plaza lortzean, une honetan, aurrean, benetan duten euskara-maila zein den egiaztatu barik: duela bi, bost, hamaika urte zutena baino ez da kontuan hartuko. Egiaztatu barik gaurko egunean euskaraz ondo egiten dutela. Berbetan ganoraz dakitela.

Bien bitartean, Hezkuntza Sailak jarraituko du hiru eleetan: euskaraz B2 eta ingelesez B1 lortuko dute gure ikasleek DBH amaitzean: guztia berdina eginda, askoz emaitza hobea. Zergatik? Gureak Valentziako ikasleak baino azkarragoak direlako. Han, ikasle koitaduek Valentzieraz B1 eta ingelesez A1 lortuko ei dute, gutxienez, DBH amaitzean. Hala dio behintzat 4/2018 legeak, Valentziako hezkuntza-eredu eleanitzekoak. ●

Evaristopediak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Bere itzulera iragarri du La Polla Records taldeak. Interneten sartuta jakin dut 84an atera zuela estudio-lehen albuma (*Salve*), eta 85ean bigarrena (*Revolución*). Gogoan dut, artean nerabazarora iritsi gabea banintzen ere, lehen bi disko haietako kantak Gasteizko Plaza Berrian zegoen fonoteka publikoan entzun nituela. Esan gabe doa letra asko ez genituela ulertzen, eta Evaristok –agudo ikasi genuen abeslariaren izena– kantatzeko zuen modu xelebrea oso dibertigarria egiten zitzaigula.

Gaurko egunera etorrita, inor nazionalista ez den honetan, bitxia suertatu

zait ikustea nola aldatzen zaion identitatea Evaristori. Izan ere, honako etiketak daude Wikipediatan artikulu bakoitzaren hasieran: “*Cantante galego-vasco*” (galizieraz), “euskal herritar abeslaria” (euskaraz), “*cantante español*” (gaztelaniaz). Esan dezadan, bidenabar, katalanezko eta esperantozko bertsioak gaztelaniazkoaren kide direla.

Entziklopedia askea da Wikipedia; ideologia libertarioaren ondoko punk mugimendua. Hala ere, ez dirudi inor ere zama kulturaletatik libre dagoenik. Ezta Evaristoren gaineko edukiak editatzen dituzten XXI. mendeko akreatak ere. ●

Kirol psikologiaren alde



AINHOA AZURMENDI
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

Badira gurean kirol arloko kalitatea hobetzeko hartzen ari diren hamai-ka neurri, dela maila eta eremu ezberdinetako teknikarien formakuntza minimoak zehazteko eta horien profesionaltasuna bultzatzeko, dela osasun arloko profesionalen kirol esparruko espezializazioa sustatzeko. Aipatu neurri horiek guztiak, azken batean, kirolarien ongizatea bermatzera bideratuta daude.

Demagun gure semeak edo alabak zelaian txorkatila apurtzen duela; edo buruan hartu duen kolpe baten ondorioz konortea galtzen duela; onargarria irudituko litzaiguke diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena medikuntzan lizentziatua ez den norbaitek egitea? Zergatik ez dugu orduan irizpide berbera aplikatzen psikologiaz ari garenean?

Esan liteke, gure testuinguru geografikoan nahiko berria dela kirolaren psikologia diziplina, nahiz eta beste herrialdeetan baduen tradizio handiagoa. Alabaina, ezagutzen ditut kirola maitatu eta arlo horretan espezializatu ziren (ginen) psikologoak, arlo horretan lan egiteko saiakera handiak egiten dituztenak. Batzuek beste batzuek baino zorte

Kirol psikologia diziplinaren ezagutza ezari, eta ikasleentzat praktika aukera ezari, *coach* delako figura gehitu behar zaio. Egun, etengabe aurkitzen ditugu kirol *coach*-en zerbitzuak jasotzen dituzten kirol elkarten adibideak

handiagoa izan dute, lan horretan sinetsi duten kirol elkarteekin topo egin dutelako. Alabaina, benetan zaila suertatzen da oraindik gure artean normalizatuta ez dagoen diziplina honetan jardutea. Are eta gehiago, psikologiako ikasleentzat praktika aldia kirol arloan egiteko aukerak topatzea. Izan ere, unibertsitateak -zenez- ezartzen duen irizpide bat da ikasleek praktikak egiten dituzten kirol entitateetan psikologo bat egotea tutore. Tamalez, psikologo gutxi daude arlo

horretan, eta ikasle askok beste esparru batzuetan egin behar izaten dituzte praktikak.

Kirol psikologia diziplinaren ezagutza ezari, eta ikasleentzat praktika aukera ezari, *coach* delako figura gehitu behar zaio. Egun, han eta hemen, etengabe aurkitzen ditugu kirol *coach*en zerbitzuak jasotzen dituzten kirol elkarten adibideak. *Coachinga* psikologiaren alderdi bat da, pertsonen kudeaketarako hainbat abilezia eta baliabide eskuratzea ahalbidetzen duen metodologia. Kirol arloko psikologo asko *coach*ak ere bagara, aitzitik, *coach* diren guztiak ez dira psikologoak. Hots, ez dute unibertsitateko aitorpen akademikoa jaso psikologiako teknikak pertsonekin aplikatzeko. Guk kirol arloari kalitatea emateko lanean jarraitu nahi dugu, goi-mailako kirolaz harago, hastapenean, zahartzaroan, lesioen prebentzioan, aniztasun funtzionalean, inklusioan, genero harremanetan, eta abar, pertsona guztien ongizatea bultzatzeko. Hala ere, psikologoez gain, ondo legoke lan horiek egiteko pertsonen aukeraketan parte hartzen dutenek ere hausnarketa hau egitea. ●



Alberdi

EUSKAL ARTISAUTZA

OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK

azoka.argia.eus

☎ 943 371 545

21. *æek* korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



Noiz pasatuko da
Korrika nire herritik?

www.korrika.eus webgunean ikusi
herri eta ordutegi guztiak





BERTSOLARITZAREN IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

BIGARREN BOOM AROA

**Nola eraldatu da bertsoa? Zer aldatu da bertsolariaren figuran?
Nola islatzen da jendartea bertsolaritzan? Nolakoa da bertsozalea?
Noruntz doa bertsolaritza? Inprobisatu ezin diren galderak dira hauek,
hori dela-eta osatu du Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak bertsolaritzari
eta bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoa EHUrekin elkarlanean.
Ez da hau, baina, abiarazi den lehen ikerketa. Beste bi egin dira aurretik,
lehena 1991-1993 artean, Siadecok gidatua, eta bigarrena 2005-2007
bitartean. Hamar urte geroago iritsi da azkena, 2015etik 2017ra bitartean
hartu baitzituzten laginak, eta orain gutxi argitaratu ondorio nagusiak.**

TESTUA | IRATI MAJUELO ITOIZ

ARGAZKIAK | DANI BLANCO



Azken bi ikerketetan hartu du parte Harkaitz Zubiri soziologoak, eta esperientzia hori probestuta, berarekin mintzatu gara bertsolaritzak eta bertsozaleetasunak azken hamarkadan izan duen bilakaerari buruz. Aitortu digunez, metodologia antzekoa erabili dute azken bi azterketetan: alde batetik, 3.000 galdetegi baino gehiago egin zaizkie bertsozaleei, bai 2017ko txapelketan, bai urte osoko saioetan; eta bestetik, sakonki elkarriketatu dituzte bertso munduko eragileak –bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak, eta abar–. Azkenik, Xenpelar Dokumentazio Zentroko datuak ere baliatu dituzte. Galdeketak egiteko Elkartetik sustatu den boluntarioritza-lana azpimarratu du Zubirik.

BERTSOLARITZAREN BIGARREN GORAKADA

Bertsolaritzak bigarrem boom bat bizi du, hori da ikerketaren ondorio nagusietako bat. Esan ohi da lehenengo gorakada 1990eko hamarkadan gertatu zela, eta oraingo datuen arabera, *boom*

hori gaingitu egin da, bai bertsolari, bai bertso saio, baita entzule kopuruan ere. Izan ere, inoizko daturik altuenak dira. Garrantzitsuena, ordea, datuak gurutzatu eta emaitza kuantitatiboez haragoko ondorioak ateratzea da. Esaterako, Zubirik azpimarratu duenez, argi ikus daiteke bertso saioak ugartu ahala, saioetako entzule kopurua gutxitu egin dela, nahiz eta kopuru osoan gehiago izan. Horrek erakusten du *boom* ereduak ez direla berdinak: lehenengo jende asko biltzen zuten saioek ezaugarritu bazuten, bigarre-na bertso saio txiki eta anitzagoengatik da berezi.

Ikerketatik atera duten beste ondorio nagusietako bat izan da bertsolaritzak dibertsifikaziorako joera hartu duela. Zubiriren hitzetan, Joxerra Gartzia garai batean aipatzen zuen “ezpaltzearen” kontzeptutik harago, gaur egun bertsolaritza

multipolarraz hitz egiten has daiteke. Hau da, norantz joko duen zehazki baieztatu ezin bada ere, bertsolaritza bat eta bakarra zenaren ustetik bertsolaritzak pluralean ulertzeko saltoa gertatzen hasi dela. Aldaketa orok dakartzan erresistentziak, eta egon badauden arren, aniztasun horrek bideragarriago bihurtuko luke bertsolaritza,

soziologoaren ustez. Izan ere, bertsozalearen perfila eta gustuak dibertsifikatzen doazen heinean, testuinguru berrietara moldatu behar luke bertsolaritzak, eta bertso saio bakoitzaren errealitateari erantzun-go dioten bertsokerak sortu. Azpimarratzekoa da, esaterako, garai batean landa

eremuan erreferentziala bazen ere, gaur egun geografikoki bertsolaritza leku guztietan dagoela, eta eremu oso anitzetara erantzun behar diela kultur erreferente gisa.

BERTSOLARITZA BAT ETA BAKARRA ZENAREN USTETIK BERTSOLARITZAK PLURALEAN ULERTZERA PASA GARA AZKEN HAMAR URTEOTAN

PARTE-HARTZAILEAK

3.000

Bertsolaritzaren azken ikerketa soziolinguistikoa osatzeko 3.000 lagunek baino gehiagok erantzun dituzte ikertzaileen galderak.

GENERO-ARRAKALA ADINAREN ARABERA

18 URTETIK BEHERA

%50

Bertsotan ari diren nesken eta mutilen kopurua parekatuta dago 18 urtetik beherakoen artean.

18 URTETIK GORA

%25

Baina adin nagusikoen artean, aktibo dauden 4 bertsolaritik bakarra da emakumea.



MUGIMENDU ETENGABEAN

Jendartearen aldaketetara moldatzeko gaitasuna erakutsi du aurretik ere, eta hori izan da gaur egunera indartsu iristeko bertsolaritzak izan duen tresna nagusia. Ikerketako zenbait elkarrizketatuk aipatu dutenez, 1970eko hamarkadan gainbehera zetorrela ikusten zen. Horren aurretik, nahiz eta askotan arlotetzat jo izan den, bertsolaria kultur erreferente garrantzitsua zen garaiko jendartean. Jendarte hori aldatu eta desagertzean, ordea, bertsolaritza oin azpian lurrik gabe geratu zen, garapenerako eta transmisiorako tresnarik gabe. Zubirik sagardotegiak jarri ditu adibidetzat, izan ere, horiek izaten ziren orduan kantatzeko gunek; baina baita ikasteko espazio ere, eta giro hori desagertzean, transmisiorako aukera ere galdu egin zen.

Bertsolaritzak garatzeko ezer berririk sortuko ez zuela ematen zuenean, baina,

Xabier Amurizak aldaketa eragingo zuten ideiak teorizatu zituen: bertsolaria ez dela berez bertsolari jaiotzen, bertsoan egiten ikas eta irakas daitekeela; eta hortaz, edozeinek egin dezakeela bertsoan. Gaur egungo bertsolaritzara iristeko ezinbesteko oinarria da hori, Bertso Eskolak sortzeko bidea ireki baitzuen eta "bertsolari" subjektua zabaltzeko aukera eman. Troiako zaldi gisa ikusi izan dira Bertso Eskolak, bertsolaritzak lehengo parametrotan funtzionatzen jarraitzen zuen bitartean jende berri bati ateak ireki baitzizkioten, gerora molde berriak ekarriko zituztenak. Fenomeno hori azaltzeko autoeraketaren ideia erabili izan du Jon Sarasuak. Izan ere, gainbeheraren aurrean, gizarte mugimendu bezala autoeratu zen bertsolaritza, jendartearen ezaugarri berrietara egokitutako proiektu soziokultural bat ideatu eta, bereziki, praktikara eramanez. Ko-

lektiboki antolatzea eskatzen zuen horrek, boluntariotza lan handia tarteko. Baina sortu zena Bertsozale Elkarte bat edo bertsolari multzo bat baino askoz ere egitura konplexu eta handiagoa da: proiektu soziokultural propio bat izanik, bertsolaritza autoekoiztiko ekosistema bat dela esan dezakegu gaur egun.

Nola ulertu daiteke bestela gaur egungo mundu globalizatuan, artea merkatuari begira ekoizten denean, *a capella* inprobisatzen den hizkuntza gutxitu baten ahozko tradizio batek horrelako arrakasta izatea? Bertsolaritza entzuleari, eta jendarteari oro har, oso loturik dagoen kultur adierazpidea da. Hori izan da bere biziraupenerako gako, eta ondorioz, kulturari begiratzeko beste modu bat eskain diezaguke. Oro har, gaur egun, kulturaz mintzatzean, transmisio eta kontsumo terminoetan pentsatzen da. Baina, Zubirik argi dioenez, kultu-



ra hori baino askoz gehiago da. Euskal kulturaren norabidea eta emaitzak kultura handietako terminoetan pentsatu ohi ditugu, baina akaso, ez zaigu neurri hori interesatzen, bertsolaritzari buruz ari garenean behintzat. Sortzailearen figura originaltasunari eta autoretzari loturik jarraitzen dugu ulertzen. Jarraitzen dugu bakardadean sortzen duen sortzaile bat irudikatzen, sorkuntza hori jendarteari helaraziko diona hartzaile batek kontsumitzeko.

Zubiriren ustez, ordea, bertsolaritzak kultura produzitzeko modu hori *hac-keatzen* du sarri, eta horrek egiten du interesgarri, errazago moldatzen baita jendartearen eraldaketetara. Adibide gisa jarri ditu bertso eskolak. Nahiz eta errima, neurri eta doinuak lantzeko espazio izan daitezkeen, hori baino askoz gehiago ere baitira. Sorkuntzarako espazioak dira, baina bertan ez da kultura

sortzaile/hartzaile logikan kontsumitzen, ez da kontsumorako produzitzen. Beste ezeren gainetik, sozializaziorako eremuak dira. Bertso Eskolak, eta bertsoaren inguruko beste hainbat espazio, biografiak gurutzatzen diren eremuak dira, eta horregatik gertatzen dira transmisiorako hain lagungarri. Zubiriren ikuspuntuan, "artearen funtzioa jendea sintonian jartzea bada, bertsolaritzak soilik iraun dezake bere jendearen bizitza puskak bere baitan islatzen baditu, bestela ez dauka zentzurik".

Bertso saioek ere, errazago funtzionatzen dute bertsolariak entzulearekin sintonizatzen badu, publikoak *feedback*-a itzultzen badio bertsolariari. Bertsolaritzak sortzen dituen

sozializaziorako eremuek, hortaz, asko laguntzen dute horretan, publikoarekin duen harreman estua diziplina honen bereizgarri izateraino.

Hala ere, eta euskal kulturari buruz egindako azken ikerketak aitzat hartuta, ongi neurtu behar da bertsolaritzaren arrakastaren tamaina: izan ere, bertsolaritzak kultura kontsumitzen duten euskaldunen artean du arrakasta, baina euskaldunen kopuru hori ez da handia. Euskal kulturaren baitan lortu duen arrakasta ere ez da bat-batekoa, batere inprobisatua izan ez den lan handia egin baita honaino iristeko, eta hori gizarte mugimendu gisa osatu den proiektu soziokulturalak ahalbidetu du.

ARTIKULAZIO BERRIEN ERRONKA

Asko hitz egin da emakumeek azken urteetan bertso munduan hartu duten garrantziari buruz. Ezin uka daiteke eragin nabarmena izan dutela gaur egungo jendartearen aldaketei egokitzeo saiakeretan, baita saio berezituak sortzerakoan ere. Bertsolaritzak, hala ere, etxeko lanak egiteke ditu oraindik arlo honetan. Ikerketak erakusten duenez, oso argi ondorioztatzen da generoaren araberako banaketan desberdinkeria oso handia dagoela, beste diziplina artistikoetan bezala. Xenpelar Dokumentazio Zentrotik hartutako datuek diotenez, aktibo dauden 4 bertsolaritatik 1 da soilik emakumea. Horrek ez du esan nahi, ordea, emakumeak ez direnik bertsolaritzara hurbiltzen, izan ere, 18 urtetik beherakoek datuei begiratu gero, neskak eta mutilak erdia eta erdia dira, bai partaidetzan bai merituetan. Gazteetatik helduarora dagoen desfase hori oso esanguratsua da, Zubiriren ustez, erakusten baitu traba sozialik ez dagoenean mutil eta nesken arteko kopuruak parekatuak direla, baina gerora traba sozialak jartzen direla kopuru hori mantendu ez dadin.

GALDERA EZ DA ZERGATIK EZ DAGOEN EMAKUME GEHIAGO PLAZAN, BAIZIK ETA NOLA IRAUN DUTEN EMAKUMEEK BERTSOTAN

Egia da, proiektu soziokulturalari esker, bertso eskoletan habitat erosoagoak sortu ahal izan direla genero aldetik, baita emakumeen artean ahalduetzeko laguntasun sareak ere. Gainera, gero eta erreferente gehiago egoteak aukera ireki du beste emakumeek haien burua islatuz ikusteko eta bertsotara animatzeko. Horrek posible egin du egoera duela hamarkada batzuk baino hobeagoa izatea, eta horre-



gatik egin du gora plazan dabilzan emakume bertsolarien kopuruak, baina argi izan behar dugu zerotik egin duela gora, %20 ingurura iritsi arte. Arazoa, baina, ez da soilik kuantitatiboa, kualitatiboki ere baloratu behar da, aintzat hartuta emakumeak zer leku duen jendaratean, zer posiziotatik kantatzen duen, zein gorputzekin, nondik entzun eta begiratzen zaion eta nondik epaitu. Ikerketan elkarriketatutako batek zioen gisan: galdera ez da zergatik ez dagoen emakume gehiago plazan, baizik eta nola iraun duten emakumeek bertsotan. Aipagarria da, esaterako, 2007ko ikerketan jasotakoaren arabera, oro har entzuleek ez zutelako faltan botatzen plazan emakume gehiago entzutea. Azken honetan, ordea, publikoko emakumeek emakume bertsolari gehiago entzun nahiko lituzketela adierazi dute. Ikusten denez, badira ageriko zailtasunak, baina baita hori aldatzeko joera ere. Badago lana, beraz, trabak kentzeko.

Izan ere, emakumeek bertsolaritzaren bigarren *boom* honetan izan dezaketenean eragina 1990eko hamarkadan rock-aren belaunaldiak izan zuenarekin alderatu liteke neurri batean. Lehen

gorakada hartan berebiziko garrantzia izan zuten rock-aren inguruan ibili eta bertsotan hasi ziren gazteek. Izan ere, orduan sortu zen *bertsolari gazte* kontzeptua, eta ez zen egon soilik adinari lotua. Belaunaldi berri bat izateaz gain, kualitatiboki aldaketa handia eragin zuten bertsolaritzan, eta ondorioz, baita kuantitatiboa ere: elkarri bizkarra emanda bizi ziren bi mundu elkartu ziren, artikulazio ariketa erraldoia eginenez. Hori ez zen, ordea, erresistentziarik gabe gertatu; eta horretan badaude zenbait antzekotasun emakumeek egun bertsolaritzan bizi dituztenekin alderatuta: exotikotzat hartzea, ertzetik abestea, espazio propioak sortzea... Horrez gain, plazan sartze hori modu kolektiboan ulertzea da bi fenomenoak batu ditzakeen beste ideia bat. Hala ere, Zubirik argi du desberdintasun nabarmenak daudela: izan ere, oraingo honetan emakumeek buruz ari gara, gizartearen

erdiaz, eta bere barnean perfil askoz ere anitzagoak biltzen dituen kolektibo bati buruz. Bere ustez, zaila da honek ekarriko dituen ondorioak aurreikustea, baina gakoa izan daiteke etorkizunean bertsolaritza bidezkoak eta bideragarriak egiteko. Edota ahulagoa, segun eta nola kudeatzen diren gaur egun bertsolaritzak dituen erronkak. Gaurkoak biharkoa baldintzatzen baitu beti, ezinbestean.

**KULTURA
KONTSUMITZEN DUTEN
EUSKALDUNEN ARTEAN DU
ARRAKASTA BERTSOLARITZAK,
BAINA EUSKALDUNEN
KOPURU HORI EZ DA
HANDIA**

Ikerketak erakutsi duen ebidentzia da, bai bertsolaritzak, bai Bertsozale Elkar-teak hausnarketarako gaitasun handia dutela. Elkarte kultural gutxi izanen da Euskal Herrian ikerketak era honetan sustatu, erabili eta jendarteratu dituztenik. Etengabe hausnartzen duten komunitateak bitxiak dira gaur egungo jendaratean, bitxia izaten jarrai dezala, beraz, bertsolaritzak. Bere burua aztertzen duenak, hobe jakiten du eta zein bide hartu. ●

Arabako bertsolari Txapelketa 2019

FINALA



Xabi
Igoa
Eriz



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Peru
Abarrategi
Sarrionandia



Iñaki
Viñaspre
Simon



Oihane
Perea Perez
de Mendiola



Aroa
Arrizubieta
Barredo

MARTXOAK 30
Larunbata 17:30

GASTEIZ,
Printzipal Aretoan



Aurkezlea:
Oier Suarez Hernando



Gai-emaiela:
Marta Ugarte Abasolo

Antolatzailea:



www.bertsozale.eus

Babesle nagusiak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Hedabideak:

ARGIA

Vital
FUNDACIÓN FUNDAZIOA

LABORAL
KUTXA

25 **udapa**

artepan



**EMAKUMEEK LAN IKARAGARRIA EGITEN
DUTE, ETA GIZONOK BESTE BEHIN
EROSO GAUDE, KANPOTIK BEGIRA”**

JABI ARAKAMA URTIAGA
ERASO MATXISTEN KUDEATZAILEA



Duela bost urte, feministek bultzatuta, eraso matxistei bestelako modu batean aurre egiteko saiakera abiatu zen Iruñerrian. Logika zigortzaile patriarkalak gaindituz, bide eraldatzaileagoak eta osatzaileagoak urratu nahi dituzte. Jabi Arakama Urtiagak prozesu horietan hartzen du parte, gizon erasotzaileekin lan eginez, besteak beste.

TESTUA | **ZIGOR OLABARRIA**
ARGAZKIAK | **JOSU SANTESTEBAN**

Hamaika urte dira Jabi Arakama maskulinitateak lantzen hasi zela. Iruñeko Gizonenea gizon taldeko kide da, Gasteizko Ez:Berdin zentruarekin lotura estua du, hitzaldiak eta tailerrak jaso eta ematen ditu. Iruñerriko esperientziaz jardun dugu berarekin, baita espazio eraldatzaileetan sozializatzen diren gizonen erasoaren aurrean dituzten jarrez ere.

Azken urteotan gero eta gehiago azaleratu dira espazio ezkertiar edo abertzaleetan eta herri mugimenduetan gertatutako eraso sexistak. Zeintzuk izan dira jarrera ohikoenak horiei heltzeko orduan?

Duela gutxira arte erasoak estaltzea zen arau. Azken urteetan gero eta gutxiago zorionez, nahiz eta asko ezagutu gabe jarraitzen dugun. Azaleratzean, historikoki, garrantzia kendu diogu edo gutxietsi. Ondoren, erasoaren benetako garrantziaz konturatzeko hasi ginenean, gure lehen-dabiziko erreakzioa izan zen ia-ia automatikoki ateratzen zaiguna, sistema patriarkal honetan ikasi duguna, zigor sisteman oinarritutakoa: erasotzaileak espazio horietatik bota eta "konponduta". Erasoa kasu indibidualtzat hartu izan ditugu, ez ditugu landu ikuspegi integratetik eta modu kolektiboan.

Bestelako lanketak sustatzen hasi zineten Iruñerrian.

Konturatu ginen ez duela ezertarako baliokidetasun erasotzailearen kanporatzeak, beste hiri batera mugitzeak, arazoa beste norabait eramatea da. Duela bost urte beste begirada batetik hasi ginen lanean, bai erasoak jasan duen emakumearekin, bai erasoak egin duen gizonarekin, eta taldean.

Feministek bultzatuta abiarazi dira prozesu horiek.

Beti atzean emakume feministak aurkitu ditut. Haiek jarri dira nirekin ha-

rremanetan. Feminismo erradikaletan militaritzen duten emakumeek ari naiz. Kontraesanak eta zalantzak izan ditugu uneoro. Lehendabiziko bileretan erabateko adostasunik ez zegoen, esaterako. Beti zegoen B plana: pertsona kanporatzeko aukera, taldea babesteko.

Zeintzuk dira urratsak?

Erasoa salatzen duen emakumearen hitza ez da zalantzan jartzen eta horrekin hasi gara lanean. Erasoa egin duen gizonarekin hitz egiten da. Esaten zaio salaketa bat edo batzuk egon direla, oso larritzat jotzen dela taldean, onartezina dela. Taldeak erabaki behar du taldearentzat onartezina dela, hori oso garrantzitsua da.

Emakumeak bere lana egiten du normalean, indibiduala edo talde mailakoa. Kolektiboetan neskek talde bat sortu ohi dute berehala, azken erasoak lantzeko eta espazio mistoaren egiturazko gauzak eta kontu ikusezinoak jorratzeko. Koordinazio taldea sortzen dute. Gizonarekin hitz egiten du taldeak eta akordio jakin batzuetan oinarritutako prozesua abiatzea proposatzen diote. Akordioak oso zabalak eta askotarikoak izan daitezke. Espazio jakinetarako betoa ezartzen zaio erasotzaileari askotan, printzipioz epe-muga batekin, ez betiko. Betoaren funtzioa bikoitza da. Batetik, emozionala edo pertsonala, erasoak jasan dutenak eta beldurra izan dezaketenak babestu nahi dira. Bestetik, politikoa, mezu bat emateko: "Onartezina da talde honetan, neurriak hartuko ditugu, eta horrelakoren bat egiten duena ez da ongi etorria izanen".

Bere jokaeraz hausnartu eta lan pertsonala egin dezala eskatzen zaio gizonari. Larritasunaren arabera neurriak desberdinak dira, adibidez, terapian edo gizon talde batean hastea. Adierazgarria da lan horiez gehienetan emakumeak arduratzen direla. Haiek bilatzen dituzte terapeutak, gizonarekin lan egiteko hirugarren pertsonak...

Zeinek osatzen du koordinazio taldea?

Beti dago emakumearekin erlazio zuzena eta estua duen pertsona bat, baita gizonarekin harremanetan dagoen bigarren bat ere. Azken hori izan daiteke berarekin astez aste gai horiez hitz egiten ari dena, edo ez —terapeutarengana joaten bada, esaterako—. Ere-muko edo kolektiboko (gaztetxea, gobernuz kanpoko erakundea...) bi edo hiru pertsona ere badaude. Eta mugimendu feministako ordezkartza potentia, bi lagun gehien jota, baina ezagunak, inplikazio eta maila handia dutenak. Garrantzitsua da gizonak mezua jasotzea: "Honen atzean talde potentia dago, feministak, eremuko kideak... hau serioa da". Aldi berean, erasotzaileari adierazi behar zaio bera laguntzeko prest daudela.

JUSTIZIA KONPONTZAILEA



Irudia Erresuma Batuko Salvage collective taldearen webgunekoa da. Taldeak herri mugimenduetan genero zapalketa, bortizkeria edo gehiegikeriak jasan dituzten emakumeak bildu nahi ditu eta laguntza eta babesa eskaini. Hainbat artistak afixa proposamenak egin dituzte justizia konpontzailearen filosofia-ri jarraituta. Irudi hau Helena Rose Bassett-ena da: "Zer gertatu da?".

Zigorraren paradigma baztertu eta alternatiba eraiki nahi duzue. Zeintzuk dira helburuak?

Lehenik eta behin, zauria ez handitzea. Betiko eran eginda gerta daiteke, esaterako, erasotzailea kanporatzea, baina taldea apurtzea. Edo tartean diren pertsonak min gehiago egin eta jaso dezakete. Mina eginga dago, saiatu gaitezen ez zabaltzen. Horren baitan, erasoak jasan duen emakumearen beharrak asetzea funtsezkoa da, baita taldearen segurtasuna eta babesa bermatzea ere, aldi berean. Azkenik, gizonaren beharrak ere kontuan hartzen dira, mendeku logikan sartu gabe. Epe luzeagoan, hausnarketa kolektiboa oso potentia da eta oso lagungarria izan daiteke gatazken aurrean beste modu batez jokatzeko.

Zenbat prozesu abiatu duzue? Zein eremu motatan?

Argi dut eraso matxistak eta sexistak espazio guztietan gertatzen direla. Horiek lantzen aurreratuena edo fine-nak espazio libre alternatiboak dira: gobernuz kanpoko erakundeen munda, gaztetxeak, okupatutako beste-lako espazioak... Musika talde batek ere deitu zigun duela urte batzuk eta prozesu polita egin zuten denek, erasotzaileak eta beste guztiak.

Sei kasutan aritu gara, bat salbu beste guztiak Iruñerrian. Erasotzaileak denetarikoa izan dira: bortxaketak potenteenak, baina baita ere ukipenak, jazarpena, mespretxu oso bortitzak, eta indarkeria. Ohikoan bi urte inguruko prozesuak izaten dira, nahiz eta luzeagorik ere egin dugun. Urtebete baino gutxiagokoak inoiz ez.

Prozesu ofizialaz ari naiz, erasotzaileak terapien edo gizon taldean jarrai dezake gero, esaterako.

Mezu bikoitza: hel diezaiozun arazoari geuk eta egin dezagun lan logika ez punitiboetatik.

Ahalduntzeaz asko hitz egin dugu gure artean. Erasoei ardura eta erantzukizun kolektibotik heltzea boteretzeko tresna erraldoia da. Prozesuotan ohar-tzen gara gai garestia, serio hartuz gero,

gure balore sistemarekin bat datozen erantzunak emateko horrelako gai potenteen aurrean.

Lauzpabost urte joan dira hasi zirenetetik. Balorazio bat egiterik?

Balorazioa positiboa da. Ikusi dugu hainbatetan, ez beti, beste modu batez ari gaitzkeela eta emaitza positiboak lortu. Askok ikasi dugu, hanka sartu dugu eta sartuko dugu, batera eta bestera probatu dugu, identifikatu ditugu funtzionatzen duten zenbait gauza. Erasoa jasandako emakumeak askotan pozik geratu dira, lasaituta. Haien prozesu pertsonala egin dute, eta horrez gain, ikusi dute haien eskuzabaltasunari esker, mendeku go-goari edo barruei eutsi dietelako, arriskutsua zen pertsonak prozesu potentia egin duela. Gizon hori aldatu da. Taldea ere aldatu da, jakinduria garatu du tankerako gertaerei hobeto aurre egiteko.

Zein da prozesu horietan zure egitekoa?

Gehienetan erasoak egin duen gizonarekin egin dut lan. Astero edo bi astean behin elkartu naiz, behintzat hasieran. Maskulinitatea landu dugu, gertatutakoa eta horren aurrean erantzuteko modua, jarrerak nola eraldatu. Jarrera diot, zeren horrelako espazioetan ideologia aldetik berdintasuna oso onartua dago, feministak

“Gizonok gure burua zigor genezake, baina erasotik asteak igaro eta ezer egin gabe jarraitzen dugu, gizon taldea osatu gabe, gure jarrerak aldatu gabe parrandan edo asanbladan”

gara gehienak... eta nik sinesten diet feminista sentitzen direla. Beraz, ideologia-tik baino praktiketatik eragiten saiatzen naiz. Emakumearen hitza ez da zalantzan jartzen, baina nirekin badute espazio bat edo-

zein tokitan eman ezin duten haien bertsioa-edo emateko. Interesgarria da prozesua. Hasieran ez dute batera zalantzan jartzen emakumearen bertsioa, nirekin konfiantza hartzean beste puntara joan daitezke "baina" asko jarriz, eta lanaren ondorioz "baina" horiek desagertzen doaz. Tresnak eskaintzen dizkiet beste modu batzuetan landu dezaten: terapeutak, gizon-taldeak, baliabide instituzionalak... Azkenik, jarraipena egiten dut.

Adibidez, gizona lehengo eremuetara itzuli bada prozesua bukatu ondoren, taldekideekin hitz egiten dut noiz-behinka.

Zer aurkitu duzu erasoan eta eraso-tzaileen atzean?

Askotan, galtzen ari ziren boterea mantendu edo berreskuratu nahi zuten indarkeriaren edo sexuaren bitartez. Ia beti kudeaketa emozional oso txarra egin dute, gabeziak indarkeriaren eta jazarpenaren bitartez soilik lantzeko gai dira. Boterea eta kudeaketa emozionala; zutabe horiek oso potenteak dira eta oso lotuta daude.

Alde ideologikoa ere badago, diskurtsoaren azalean geratzen bagara ez, berdintasuna eta horrelakoetan; baina maskulinitatea ardatz hartuta bai. Nola lortzen dut asebetetzea, nola kokatzen naiz bizitzan. Barneratuta dituzte agindu batzuk: “Nik horrela jokatu behar dut gizona naizelako” edo “nik sexu harremanak nahi baditut hau egin behar dut”, ahaztuta erabat emakumearen beharrak eta nahiak. Lehen egunean ez dizute esaten, baina gero atera ohi da. Ez dute maskulinitate eredia zalantzan jartzen, eta giro eraldatzaileetan sozializatutako gizonez ari gara.

Zein izaten da eta zein izan beharko luke inguruko gizonen lana?

Gehienetan gizon gutxi batzuek esaten dute gizonen artean eta gizontasunetik lanketa egin beharra dagoela. Zorritzarrez, indar gutxi izaten du jarrera horrek.

Lidergoa, hemen ere, emakumeek hartu ohi dute. Haiek izaten dira, “aizue, zer edo zer egin behar duzue”, esaten dutenak. Normalean gizonok ez dugu ukatzen behar dugunik, baina ez dugu lantzen. Erresistentzia aktiboak baino gehiago, pasiboak jartzen ditugu. Etsigarria izaten da prozesua bultzatzen saiatzen diren gizonentzat, eta neskentzat. Emakumeek lan pertsonal eta sozial ikaragarria egiten dute, eta gu berri ere eroso, kanpotik begira bezala.

Emakumeak ari dira eurena egiten. Diozunaren arabera, gizonok ez.

Emakumearen kexa estaltzeko boterea dugula sentitzen badugu, hala egingo dugu, edo hala egiten saiatuko diren gutako batzuk egongo dira. Aldiz, gure kide feministak indartsu daudela eta gauzak argi esaten dizkigutela konturatzen bagara, agian hasieran ez gara es-



taltzen saiatuko hain nabarmen. Aterako dira “bainak” gerora: gertatutakoari garrantzia kendu, jarrera batzuk alkoholaren atzean ezkutatu, emakumearen hitzak zalantzan jarri (“jo, behin ibili ziren maite-kontutan...”). Askotan trabak jartzen ditugu, gero eta modu sotilagoan. Ez dut esango gizon guztiok egiten dugunik, baina joera da. Ukazioa edo garrantzia gutxitzea dira estrategia nagusiengotakoak. Txanpon beraren beste alde da ondokoa esatea: “Gertatu dena oso handia da, handiegia guretzat”. Horrela, gizonok ezer ez egitea zuzitzen dugu.

Beste estrategia ihes egitea da: “Bai, onargaitza da, eta egiturazkoa, zerbait egin behar dugu...”. Dena onartu, baina ez dut ezer egingo. Bilera antolatu eta inor ez agertu. Ihes eginda saiakerak boikoteatzen ditugu. Mikromatxismoekin lotzen dut. Gizon askok pentsatzen du nesken kontua dela, neskek landu beharrekoa. Ageriko diskurtsoan ez beti, baina pixkatxo bat sakonduta hori ikusten da. Indibidualizatze joera ere badago: “Urliaren arazoa da, ez besteona”.

“Erasotzaileek, galtzen ari ziren boterea mantendu edo berreskuratu nahi zuten, indarkeriaren edo sexuaren bitartez”

Gaiari heldu izan diogunean, beste muturrera jotzeko dugun joera salatu izan du feminismoak, alegia, jarrera punitiboenak hartzea, eta rol protagonistatik gainera.

Zigorren logikan sartzen lehenak izaten gara. Batetik, nik beldurrarekin lotzen dut: zaku berean sartu ez nazaten izanen naiz lehenak erakusten kontrako jarrera. Bestetik, zigorraren logika erabat integratuta dugu.

Bestalde, erruduntasunerako joera handia dugu. Norbere burua errudun egitea oso toki desatsegina izan

daiteke, baina oso eroso ere bai. Gure burua zigor genezake, baina asteak igaro eta ezer egin gabe jarraitzen dugu, gizon taldea osatu gabe, gure jarrerak aldatu gabe parrandan edo asanbladan.

Jarrera interesgarriak ere atzeman duzu gizonengan.

Badago sektore bat, gero eta handiagoa, emakume batzuen eskutik gaiari daukan garrantzia eman eta heltzen saiatzen ari da. Gaia sistemikoa dela ulertzen dute, eta lan pertsonala zein talde mailakoa egiten dute. ●

AITOR ALTUNA, EDURNE GONZALEZ
AUSARTU KULTUR ELKARTEA

“Programatutako udalekua baino zailagoa da udaleku parte-hartzailea aurrera eramatea”

Udalekuetan izena emateko garaia den honetan, hiru zutabetan eraikitako proiektua aurkeztu digu Ausartu Kultur Elkarteak: begiraleek programatutako ekintzen ordez, gazte eta heldu guztien artean jositako egitaraua; haurrei bakarrik zuzendutako udalekuen partez, 18 urtera artekoentzako eskaintza; eta makro-udalekuen eredia beharrean, gehienez 30 laguneko taldeak, familia giroa sortzeko.

TESTUA | MIKEL GARCIA IDIAKEZ
ARGAZKIA | DANI BLANCO

Aitor Altuna eta Edurne Gonzalez dira Ausarturen sortzaile eta sustatzaileak (Ausartu.eus). Hezitzaile, begirale, formatzaile, dinamizatzaile... aritu dira aisialdi proiektu ugarian, eta esperientzia hori guztia baliatu nahi dute orain, proiektuotan ikusi dituzten hutsune eta gabeziei aurre egingo dien udaleku propioa martxan jartzeko. Adibidez, gertatu izan zaie 15 urterekin udalekuetan primeran pasa duen gazteak 16 betetzearan ere berriz izena ematea, baina ezetza jasotzea erantzun gisa, adinagatik. Hala, 18 urtera arteko eskaintza dute euren, hiru taldetan banatuta: 12-14 urteko gazteak, 14-16koak eta 16-18 bitartekoak. Astebeteko egonaldia planteatu dute talde bakoitzarekin, Astigarragako Santiagomendi aterpetxean.

HEZITZAILEEN "EKINTZITISA" GAINDITZEAZ

Udalekuetan oro har faltan bota duten beste ezaugarri bat bihurtu dute erronka: “Gazteak proiektuaren parte sentitzea eta lortzea guztion izango den eta guztion artean eraikiko dugun aisialdi proiektua”. Hezitzaileek maiz “ekintzitisa” dutela dio Altunak, “uneoro aktibitatearen bat daukagu programatuta, uneoro mugimenduan eta topera... eta bestelako filosofia bati heldu nahi diogu guk”. Malgutasun horrek lan gutxiago ematen duela uste duenaren-

tzat, garbi azaldu du Gonzalezek: “Udaleku parte-hartzailea aurrera eramatea askoz zailagoa da programatutako udalekua baino, gazteak entzun behar dituzulako eta adierazi dituzten behar horiei gaurtik biharrera erantzuteko baliabideak lortu behar dituzulako. Jarrera gakoa da, sortzen diren behar berriei erantzuteko prest egon behar duzu. Batzuetan ezingo da nahi dena bere horretan egin, baina beharbada bai egokitu-ta. 34 pertsona egongo gara (gehienez 30 gazte eta lau-pabost hezitzaile) eta 34 pertsona horien artean sortuko ditugu udaleku hauek. Oinarrizko programazio bat izango dugu, baina beti ere irekia, moldatzeko eta aldatzeko aukera bermatuz”.

Benetako parte-hartzea dute helburu, baina zer da benetako parte-hartzea? “Zein ekintza egingo dugu gaur, hau ala hau? Eta gehiengoaren babesa lortzen duen ekintza egin. Ez dugu parte-hartzea horrela ulertzen –azaldu digu Aitor Altunak–, baina ‘zer egin nahi duzue?’ galde-tu eta ‘primeran, ba orain zuek antolatu’ planteamendua ere ez dugu maite. Uda-

leku barruan komunitate bat sortu nahi dugu, denon artean adostu, erabaki eta hori aurrera atera ahal izateko prozesua eta baliabideak jarri. Udaleku

“

Gai baldin banaiz zure konfiantza lortzeko eta zuk kontatzeko hilekoa jaitsi zaizula eta min ematen dizulako ez duzula ekintza jakin bat egin nahi, zaintza bermatuta dagoen seinale

EDURNE GONZALEZ

batzuetan egin ohi dute ‘haurrek erabakitze eguna’: haurrek euren asanblada bat egiten dute eta ekintzaren bat, jolasen bat, hautatzen dute, baina guk programazio ludikotik harago joan nahi dugu, egunaren eta astearen antolaketa egin nahi dugu elkarrekin, hezitzaileok ere asanbladaren parte izan nahi baitugu; gogoeta baten ondorio izan dadila erabakitzea goazena, behar (zentzurik zabalenean) batzuei erantzuneko dien astea antolatzea da asmoa. Gauetan adibidez, udaleku guztietan bilera egiten dute hezitzaileek, eguna nola joan den baloratzeko, baina ez da hori bera egiten gazteekin, ez da tarte bat hartzen eguna benetan baloratzeko, “ongi, gaizki” dikotomiatik harago. Guk denon artean egin nahi dugu balorazioa”.

Esaterako, gehitu du Edurne Gonzalezek, erabaki daiteke arratsero ordubeteko tarte hartzea, ondokoari kontatzeko zer

moduz dauden. Edo krepeak bazkaldu nahi dituztela adostu dezakete eta batzuk erosketak egitera joango dira eta beste batzuk errezeta begiratzearaz eta prestaketa antolatzeaz arduratuko dira. “Zer egin nahi duten galdetu eta lehenengo egunean beharbada esango digute ez dakitela edo guk nahi duguna antolatzeko, baina horri buelta ematen joatea da asmoa”.

Erabakimena gazteei itzultzeko xede horretan, beste adibide bat jarri digu Gonzalezek: “Anekdotak bat da, baina udalekuetan izena emateko matrikularen fitxan, gurasoek tarte zuri bat izaten dute seme-alabari buruzko informazioa jartzeko, bada guk gazteari berari zuzendutako laukia gehitu dugu, bere burua aurkez dezan. Eskatzen zaie gurasoei haurra deskribatzeko, baina udalekuetara datorrenari berari nola ez diogu ba aukera emango bere burua deskribatzeko? Eta aldea izugarria da, guraso batzuek ‘ez du entsaladarik jaten’ eta halako informazioa jarri ohi dutelako, eta gazteak beren izaeraz mintzo dira gehiago”. Argazkiekin berdin jokatu du dutela nabarmendu du Altunak: gurasoei baimena eskatu ohi zaie, udalekuetan euren seme-alabei ateratako argazkiak sare sozialetan zabaltzeko eta abar; “guk protagonistei ere galdetzen diegu, 15 urteko gazteak esan diezazukeelako ez duela nahi bere aurpegia halako edo bestelako lekutan agertzea. Zabaltzen ari garena bere irudia izanik, zer esana izango du ba”.

ZER DA ELKAR ZAINTEA?

Hirugarren oinarri bat du Ausarturen proposamenak: kopuruz udaleku txikiak izatea. 34 lagunen artean sortzen diren harremanak gertukoagoak eta sendoagoak izatea espero dute, 70en artean sor daitezkeenak baino. Talde txikiak arreta pertsonalizatuagorako aukera ematen duela diote, elkar zaintza estuagorako aukera. “Hezitzaile eta nerabeen artean muga bat dago, errespetatu behar den muga bat, baina gai baldin banaiz zure konfiantza lortzeko eta zuk kontatzeko hilekoa jaitxi zaizula eta min ematen dizulako ez duzula ekintza jakin bat egin nahi, zaintza bermatuta dagoen seinale. Gazteek senti gaitzatela gertu eta entzuteko eta laguntzeko prest, horrela ulertzen dugu elkarren arteko zaintza”, azaldu du Gonzalezek. Horretarako, gehitu du, inportantea da “gazteak ez hartzea inkompetentetzat, maiz horretarako joera dugulako. Aldi berean, ezin diot eskatu gazteari bere sentimenduak eta emozioak adierazteko, nik nireak ezkututzen



EROSO ETA SEGURU. BAKOITZA BERE MOTXILAREKIN DATOR UDALEKUEKETA. “ZAZPI EGUNETAN EZ DIOGU SOLUZIOA AURKITUKO, BAINA AURKITU DEZALA ESPAZIO EROSO ETA SEGURU BAT”.

baditut. Gaur gaizki banago eta negargura badut, gardena izango naiz eta gaizki nagoela azalduko dut, zintzotasunez”.

Talde txikiak lasai, patxadaz eta malgutasunez aritzeko aukera ematen duela ere azpimarratu dute, talde handiek behar duten kontrolari iskin egitea errazagoa baita.

EPAITUA EZ ZAREN ESPAZIO BAT

Hezkuntza ez formalari duen balioa airtortu nahi diote Altunak eta Gonzalezek, pertsonak hezten dituelako, ez testu-liburuekin, baina bai esperientzien bidez. “Udalekuetan esaterako, etxetik kanpo astebete igarotze hutsa eta horretara ohitzea bada hezitzailea. Agian gaizki edo arraro sentituko zara etxetik kanpo, eta onartu beharko duzu gaizki zaude-la, eta zure frustrazioak nola kudeatu landu beharko duzu”, dio Gonzalezek. “Sentimenduen kudeaketa, harremanak eta sorkuntza prozesuak modu naturalean lantzen dira hezkuntza ez formalean –uste du Altunak–. Eduki gutxiago barneratuko dituzu, baina bizipenetatik eta ziurgabetasun

horretatik, ezagutu berri dituzun lau hezitzaileekin eta beste 30 gazterekin 24 ordu igarotzeak ematen dizun ziurgabetasunetik, asko ikasiko duzu. Norbere buruarekin harremanetan jartzen zaitu horrelako esperientzia batek, norbere gaitasun eta ezinekin”.

Gonzalezen hitzetan, norbera den bezalakoa izateko espazioa dira udalekuak, “ez duzulako egunerokoan inguruan mugatzen zaituen jendea; udalekuetan ez zaituzte epaituko, eta egun horietan askeago sentitu zaitezke zure emozioak azaltzeko”. Bakoitza bere motxilarekin etorriko da, bullyingaren biktimarik izango da beharbada, eta motxila hori askatzeko eremua izan daitezke udalekuak, barnean daramana husteko abagunea. “Zazpi egunetan ez diogu soluzioa aurkituko, ez dugu bere ingurua eta errealtatea hainbeste ezagutzen, baina zazpi egun horietan aurkitu dezala espazio eroso eta seguru bat, lasai eta gustura egoteko espazioa, eta indarrez beteta bueltatu dadila bere eguneroko errealtatera”. ●

Eskolan baino eduki gutxiago barneratuko dituzu, baina bizipenetatik eta ziurgabetasun horretatik, beste 30 gazterekin 24 ordu igarotzeak ematen dizun ziurgabetasunetik, asko ikasiko duzu

AITOR ALTUNA

IÑAKI ETXELEKU KAZETARIA

“Lanaren balioaren ideia oso presente daukate ZAD-en, egiten dutena zentzuz beteta dago”

Donazaharre, 1977. *Berria*-ko kazetaria da. ZAD bizi dutenen ahotik (Gatuzain / Txalaparta) liburuaren egilea: “ZAD ezagutu nuen EHZ-k antolatutako brigada batekin joan nintzelako. Garatzen ari ziren proiektuen baliabideek jakinmina sortu zidaten”.

TESTUA | MIKEL ASURMENDI

Liburuan diozunez, ZADen bizitakoak (*Zone d'Aménagement Différé* / Gerora Antolatzeko Eremua) bultzatu zintuen berau idaztera.

Bai. Hasieran ez nuen batere asmorik liburu hau idazteko. Gatuzain argitaletxeko Hartzea Lopez Aranak animatu ninduen. Ez nuen ere [Frantziako Gobernuak] bertan eraiki nahi izan zuten aireportuaren kontrako borrokari buruzko enegarren liburua egin, asko idatzi baita horretaz. Zortzi urtez eraiki den autonomia proiektuari buruz idatzi nahi nuen, bestelako jendarte baten bilaketan sortu diren baliabideei buruz: bizitza antolatzeko moldeez, zer lortu duten edo zer ez kontatu.

Liburua elkarrizketen bidez egin duzu.

Argi neukan ez nuela lehen pertsona idatziko, ez bainuen aski menperatzen gaia, ezta ZADeko egoera ere. Ez nuen kanpoko begiradaz egin dako liburu bat nahi. ZADen aritutako en hitzetan oinarrituta behar zen. Lehen fasean, gunea ongi ezagutu ondoren, elkarrizketatu nahi nuen jendea arretaz

xerkatu nuen. Iazko martxoa eta apirilean egon nintzen elkarrizketa luzeak egiteko, eta ekainean itzuli nintzen bukatzeko. Hain juxtu ere, polizia ZADeko eremuak deuseztatzeko operazio militar bortitzak egin zituen unean.

Tentsio eta arrisku une horietan zaldistek nola hartzen dute kazetari bat?

Kazetariekin mesfidantza dago ZADen, normala da. Foku anitz ezarri baitituzte zadisten gainean [ZADeko bizilagunak dira zadistak], askotariko

kazetariakizandiraetahedabideek denetarik esan dute ZADri buruz. Batzuek, hippy eta bilo-harro buru-bero batzuk bezala aurkeztu zituzten. Edonola ere, ni ez naute kazetari bezala hartu, auzolanetan parte hartze- ra joan den norbait bezala baizik. Haien ezagutza egin ondoren pasa nintzen kazetari lanetara.

Zer da ZAD gaur egun, zenbakietan?

300 jende inguru dira, alta, bertan bizi direnak ez dira kopuru zehatzik emateko gai. 1.650 hektareako eremua da, oso

zabala, bizigune arrunt ezberdinak dau- de, baserriak eta harrizko etxeak, txokoz txoko eraikitako txabolak, zuhaitzetan edo lurrean. Bisitak antolatzen dituzte, baina jendea ez da txoko guztietara iris- ten. ZADen badago ere, bizpahiru hilabe- tez bizitzen egon eta lekua uzten duena.

Zer da ZAD hemengo mugimendu alternatiboentzat? Aman Komunak ekimenarentzat, adibidez.

ZADeko autonomia proiektua eredu gisa hartu dute mugimendu alternatiboetako kideek. Euskaldunak EHZren bidez hasi ziren harremanetan, lehenbiziko bri- gada Euskal Herri osotik joan zen hara, ez soilik Iparraldetik. Areago, gehiago ziren Hegoaldekoak. Esperientzia bizi dutenek haren berri eman eta sareak ehundu eta hedatu dituzte munduan ba- rrena. Uda berezia izaten da han, guk 200 euskal herritarretik goiti kontatu dugu ZADen. Aman Komunak proiektua- rentzat ZADek garrantzia handia ukan du: ZAD erdigunean jarri dute, nazioar- teko borroken topaleku fisikoa izatea nahi dute. Ambazadaren proiektuaren bidez harremanak bizirik daude ZADeko eta hainbat euskal herritarren artean. Errekaleorretik joan den jendeak inte-

resa sorrarazi du, senidetza bezalako zerbait sortu da. Ezkerreko mugimendu alternatibo autonomoak Euskal Herriaren errealitatea eraman du hara, orain arte ezagutzen ez zena. Hau da, herri bat, gure lurraldea, kultura, hizkuntza eta borroka historia bat; eta interesatu dira. Harremanak sendoak dira. Euskal eremua 120 metro koadrokoa da, ZADeko egur, lastoz eta buztinaz egina, udan joan direnek auzolanean egina.

ZADeko autonomiaz, egiturez edota askiespenaz idatzi duzu. Nolakoa da bertakoen autosufizientzia?

ZADen badago denetarik. Batzuek gogo handiz lantzen dute elikadura, autonomia batera heltzeko. Eta ongi lan eginez gero lortzen dute. Bizigunetan antolatu daude, bakoitzean badago kolektibo edo talde bat. Baratza eta hazkuntza eremuak oso ongi landuta daude. Aldiz, beste batzuek ez dute horiek lehentasunezko eremutat hartzen, beste proiektutan ari dira. Hala ere, lur kolektibo horiei denek garrantzia handia ematen diete autokontsumoa garatzeko. Kolektiboen arteko proiektuak partekatzen dituzte, ZAD autonomia eta gaitasun eremua izan daitekeela erakusteko. Ekimen mota anitzak daude, baina ideia zehatz bati lotua. Halaber, kanpoko jendearekiko harrera ongi antolatuta daukate. Ez da ahantzi behar, urte luzez, kanpoko laguntza ukan zutela proiektua aitzinatzeke. Janariak eta botikak eraman dizkiete kanpotik, adibidez.

Marcel, Genevieve, Marsios, Benoit, O eta Sarah izan dituzu solaskide.

Seietatik bi ezagutzen nituen, besteak ez. Argi nuen orotariko ikuspegiak behar nituela bildu. ZAD etengabeko eztabaida lekua da eta ikuspegi anitz daude. Erarmaten dituzten borroka moldeen inguruan estrategia ezberdinak daude. Garbi neukan: jendea engaiatua izan behar zen mugimendu orokorrean. Izan ere, badaude beren txokoetan ari direnak, mugimendu orokorraren borrokan parte hartzen ez dutenak.

Solaskideak garden mintzo dira.

Egiari zor, ez nuen inoiz ikusia ezkerreko jendearen artean han ikusi dudana umiltasuna. Ez dira ezeren irakaspen emaila. Lortzen eta lortzen ez dutenari buruz mintzo dira argi, beren kontraerreak ere aipatuz. Jendarteko errealitatea segitzen dute, dirua erabiltzearen beharra. Batzuek ere aitortzen dute ZADetik kanpo aritu behar



dutela aitzina egiteko. Kontraeranak dau-
de, haatik bertako proiektuetan parte har-
tu dezakete, bertako eskolan edota okin-
degian. Adibidez, ogia egiten ikasten dute,
elikatze kolektiboa sustatzeko. Ongi ikas-
ten dutenek besteei irakasten diete. Ikas-
taroak dohainik dira. Lanaren balioaren
idea oso presente daukate, egiten dutena
zentzuz beteta dago haientzat.

Elikaduraren beregaintasuna kezka dute.

Alabaina, Marcelek dioenez, “beregain-
tasuna ez da erlijio bihurtu behar”. Ale-
gia, badira beregaintasuna duda-mudan
jartzen dutenak. Laborantzan usatuak
ez direnak. Zenbat elikagai egin? Berta-
koentzat soilik? Merkatura eramateko?
Denetariako iritziak daude. Egia esan,
okupazio mugimendura hiritik joan di-
renak –kalekumeek– laborantzan ikasi
dute bertako laborariekin. Behien haz-
kuntzan hasi eta gasnategi bat munta-
tzeraino. Alegia, batzuk maitemindu
dira laborantzarekin, lurra landu eta
bertan bizi nahi dute. Beste batzuek
aldiz, esnea kooperatiba bati saltzen
diote, bizimodua eta lan ereduak dene-
tarikoak dira.

“Ez dut, ez sekula ez inon ikusi ha- lako intentsitaterik bizi kolektibo mailan”, dio Marcelek.

Aldi oro gogoetatzen dute, hau da, tal-
de batek nahi badu eraikuntza altxatu
kontserbategi bat muntatzeko, bada lan
hori kolektiboki pentsatua da. Galdera
hauxe egiten dute: “Nola egin eta zerta-
rako erabiliko dugu?”. Ideologiaz ezta-
baidatzen dute, baina bereziki egunero-
ko bizimodu praktikoari buruz.

Nork bere burua deseraikitzeaz mintzo dira solaskideak: sexismoa, homofobia, transfobia, nazionalis- moa, espezismoa edo arrazakeriaz, besteak beste.

ZADen urte luzetan bizi izanda-
ko jendeak dioenez, han erroto den
jendeak kontzientzia maila handia
lortu du, lan bati atxiki zaio. Berta-
ra joaten denarekiko ez dago epaitze
gisako bat. Ezezagunarekiko “neu-
traltasuna” izaten da hasieran. Edo-
nola ere, elkarriketetan diotenez,
sexismoa edo arrazakeria gaien ingu-
ruan jarrera guztiak ez dira baikorrak.
Eremua zabala da, zaila da neurtzen.
Haatik, gai horiek lantzen ari dira.

Frantza ez den beste kultura eta hiz-



kuntzekiko jarrera berriz, nolakoa da?

Uste nuen jarrera ezkor gehiago agertuko
zirela haien solasean. Euskal Herriko jen-
de multzo handia izan da zenbait unetan,
euskaraz funtzionatzen
genuen arazorik gabe.
Lehen aldikoz, gutxien-
goekiko irekidura sentitu
dut Frantziako ezkerre-
ko espresio ezberdinen
aldetik, lasaitasun osoz
hartu dute bestelako
jendeen identitatea, hiz-
kuntzak. Mundu osoko
bestelako mugimendu
batzuekin lanean aritzeak jendearen au-
rreiritziak uxatzen lagundu ditu.

ZADen kontrako Cesar operazioa izan zen lehenik eta iragan udaberrian eremuaren herena suntsitu zuten polizia.

Alabaina, indar harremanen estrategia
areago landu dute ondoren, ausia eta ba-
taila planteatu dute administrazioarekin.
Estatuak aireportu proiektua utzi zuen,

eta ZADek zutik segitzea ezin du jasan.
ZAD autonomia eredu da, Estatuaren
antolakuntzatik kanpo, saretze handia,
bere baitatik antolatua, bere buruaren

jabe. Balore horiek garatu
izana ez zaio gustatu esta-
tuari. Horren lekuko Cesar
operazioa izan zen, baina
huts egin zuen. Are mol-
de bortitzagoa erabili zuen
2018ko udaberrian, sekula-
ko operazio militarra: 2.500
polizia, droneak, tankeak.
Ikaragarria izan zen. Azken
horretan ere ez zuten lortu

desegitea eta Estatuak negoziaketa bila-
tu du irtenbide bat aurkitzeko. ZAD osoa
administrazioaren lege eta arauen ba-
rruan sartu nahi ditu, dena ofizializatu.
Eta noski, joko horrek zadisten artean
“tirabirak” sorrarazi ditu.

Estatuak ez du etsiko.

Bistan da. Baina kontziente dira horre-
taz. ZADen parte hartzen duten kolekti-
bo ezberdinak jakitun dira bateratasuna

“Ez nuen inoiz ikusia ezkerreko jendearen artean ZADen ikusi dudana umiltasuna”



bilatu behar dutela Estatuarekin harremanetan. Hein batean aireportuaren kontrako borrokan hori egin zuten. Estatuaren azpiegitura proiektu bat geraztea bakan izaten da. Sekulako garaipena izan zen, aztertze modukoa.

Zadisten arteko komunikazioa landu dute. *Hamabien zikloa* ekimena inportantea izan da.

Marsiosek erraten duenez “badira populu batzuek denbora luze eskaintzen diotela solasari bizitzan, funtsezkoa da”. ZADen eztabaida oso landua da, batzarra oso tresna inportantea da, badira batzar orokorrak. *Hamabien zikloa* bitartekari talde bat da, gatazka sortzen den momentuan, bi edo hiru aldeen arteko solasaren medio, konponketa bilatzen dute. ZADeko eremu eta ekimen ezberdinetatik badago ordezkari bat, hilabetero aldatzen dena. Haien artean txandakatzen dira horrelako auziak trenkatzeko. Aitortzen dute askotan lortu dutela eraginkorrak izatea. Baina onartzen dute ere *Hama-*

bien zikloa bitartekari taldeak ez dituela “krisi une” guztiak bideratzea lortu. Une honetan, talde hori ez da ari, egoterra lasaiagoa behar da horrelako taldeak lanean jartzeko. ZADetik tokiko jende batzuk kanporatuak izan baitira, poliziaren azken erasoen ondoren.

Berriki, ZADeko ordezkari bat tokiko suprefetarengana joan da.

Bai. Mugimenduak erabaki zuen negoziatzea edo hitz egitea bederen, eta horrek mugimenduan eztabaidak eragin ditu. Tentsio une handiak izan dira: negoziaketak nola egin, zein estrategia erabili. Hala ere, gehiengoak pentsatu du negoziazioetan sartu behar dutela, erabiltzen dituzten lur horiek guztiak, proiektu guztiak, lotuta daude. Orduan, zer eta nola egin inor kanporatu gabe, bertan irauteko?

Denek ez dute poliziaren aurrean berdin jokatzeko, alegia.

Saiatu dira poliziari aurre egiteko bitartekoak erabiltzen eta justizia eredu bat sortzen. Ez da erraza. Justizia organorik ez den eremu batean nola egin gatazkak kudeatzeko? Liburuan porrotak aitortzen dituzte, baina lorpen handiak ere bai: ZADen leku orotatik etorrirako jendea dago. Jende mota orok badu aukera proiektu horretan parte hartzeko, berari egokia zaion eremu edota kolektibo bat atzemateko, hori oso garrantzitsua da, baina kudeatzen zaila. Pentsa, badago “gizarte klasikoan” bizimolde dorpea eraman eta errotzerik izan ez duena, aldiz, ZADen lortu du. Bere nortasuna han eraiki duena. Badira ere, arrazoiak arrazoi, gunea utzi eta gizartean segitzeko indartuta atera den jendea.

“ZADek komunaren ideia jarri du irudimen politikoan”, idatzi duzu.

Horrela bukatzen da liburua. Baserri gune eremu horretara etorri dira hirian militatzen usatuak ziren jendeak, esperientzia asko bizi izandakoak politikan, ezker-eskuin borroketa zailduak eta proiektu iraunkorra eraiki dute ZADen. Jende komunitate bat sortu eta harekiko atxikimendua lortu. Autonomiaren ildoan ari den kide batek horrela dio. “Euskal Herritik joan garenok ‘zalan-tzan’ jarri gaituzte zenbaitek, lurralde bati atxikiak garelako. Baina, hara, badago anarkismotik autonomiara bide egin duten lagunak, eta ZADeko ‘lurraldeari’ atxikiak bukatu dutenak”.


Ez da aise konfluentzia hori lortzea.

Noski, komunitate bat sortzea biziki zaila da. Hain epe motzean ondorioak ateratzea ez da erraza ez egokia ere, baina historia komuna duen komunitatea eraikitzen ari dira. Bizipenek, eztabaidek eta auzolanek lagundu dute elkarren arteko borrokak gainditzeko, komunitateari atxikitzen eta etorkizuna elkarrekin eraikitze nahi handia dago. ●



JAKA HORIAK ETA ZADISTAK

Jaka Horien ekimenak abiatu zirenean, Frantziako ezkerreko mugimenduetan mesfidantza zegoen: “Zer dira hauek? Erabiltzen duten diskurtso orotarikoa ez dugu gustuko”, zioten zadistek. Alta, emeki-emeki ezkerreko jendea haiengana hurbildu da, duda-muda zenbait tarteko, noski. Eta zadistek ikusi dute jaka horien artean badagoela aukera bat. Zadistek ZADeko eremuetako mozkinak –barazkiak edo ogia– eraman izan ohi dituzte beste borroka guneetara, adibidez, etorkin eta errefuxiatuei. 400 pertsonari eguneko elikagaiak emateko unitate ibiltari bat antolatua dute. Orduan, gisa berean, biribilgune edo errotondetara joan dira elikagaiak partekatzea eta haiekin hitz egitera. Zadistek autonomiaren kultura haien artean zabaltzeko modua ikusi dute. ZADek lan kolektiboa elkartasunean bizi nahi du. Jaka Horien fenomeno ez da hein berekoa, baina biribilgunetan jendea hasia da berriz ere solasean, elkar ezagutzen, mintzatzeko. Jaka Horien ideiak hurbiletik ezagutu dituzte. Hori egungo gizartean urrats handia da.



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Harrikada Eliza Katolikoaren buruan

Erroma, 1144ko martxoan. Luzio II.a (Gherardo Caccianemici dal Orso) aita santu izendatu zuten. Izendapenak adoretuta edo, eta, ohikoa zenez, Estatu Pontifikalen boterea handitu nahian, berehala, Roger II.a Siziliakoari aita santuaren mendeko gisa zeuzkan betebeharrak gogorarazi zizkion Luzio II.ak. Kargu hartzeari erantzunez, Siziliako agintaria armada prestatzen hasi zen eta aita santuak atzera egin zuen orduan; su-etena sinatu zuen, Siziliako erregeak jarritako baldintzak txintik atera gabe onartuta.

Hura pontifize berriaren ahuldade seinaleztat hartu zuten erromatarrek eta, artisau nahiz merkataria aberatsak buru, Luzio II.ari eskatu zioten gai zerutiarretara mugatzeko eta afera lurtarrak haien esku uzteko. Hiriko nobleziak jarriera neutrala hartu zuen une hartan, zer gertatuko zain.

Aita santuak entzungor egin zuenean, hiritarrek Erromako Komuna osatu zuten, Erromako Errepublika zaharraren moduko gobernu bat ezartzeko ahaleginetan, nobleen eta aita santuaren agintearen aurka. SPQR (*Senatus Populus Que Romanus*) antzinako leloa ere berreskuratu zuten. 56 kidez osatutako Senatua osatu zuten hiriko 14 barrutietan launa ordezkari hautatuta, eta Giordano Pierleoni buruzagi nagusi edo "patrizio" aukeratu zuten -garai hartan "kontsul"



ERROMAKO KOMUNAK SPQR LELOA BERRESKURATU ZUEN 1144AN, ERROMAKO ERREPUBLIKAREN MOLDEAK BERRESKURATU NAHIAN.

izendapenak noblezia kutsu handiegia hartua baitzuen-.

Hasieran, nobleei ondo iruditu zitzaizen aita santuari boterea kentzea, haiek ere ahalegin horretan ari baitziren aspaldian. Baina Komuna indartu ahala, Luzio II.arekin bat egin zuten beren interesak babesteko. Batzuen eta besteen aldekoak borrokan hasi ziren orduan Erromako kaleetan.

1145eko otsailean Luzio II.a buru zuen armada txiki bat errepublikazaleek gotorlekutzat hartuta zuten Kapitoliarrantz abiatu zen. Baina ez zuten

Komuna menderatzea lortu eta, gainera, Dodofredo Viterbokoa kronikariaren arabera, aita santuari harrikada bat jo zioten buruan. Handik egun gutxira, otsailaren 15ean hil zen, kolpearen ondorioz, karguan urtebete baino gutxiago egon ondoren.

Erromako Komuna 1193an desegin zen, hiriko udal araudi zibila ezarri ondoren. Handik aurrera, hiriaren agintea ez zen zuzenean aita santuaren edo goi nobleziaren esku egongo. Praktikan, Erroma aita santuaren kontrolpean zegoen berriro. ●



Lehen paseoa espazioan

Espazioko lehen bidaia Yuri Gagarinek egin zuen 1961ean; 1969an Neil Armstrong izan zen Ilargia zapaldu zuen lehen gizakia. Bi horiek lehia espazialaren mugari nagusiak izaki, gutxitan gogoratzen da tartean, 1965eko martxoan, Aleksei Leonov astronauta sobietarrak espazioko lehen paseoa egin zuela. Vosjod 2 ontzitik irten eta 12 minutu eta 9 se-

gundoz ibili zen espazioan, "Pauso txikia bat gizaki batentzat, jauzi ikaragarria gizadiarentzat" Armstrongen esaldia denok dugu gogoan -eta ilargiratzearen 50. urteurrena hurbildu ahala, behin eta berriro gogoraraziko digute bestela-. Baina Leonovek ere bere esaldia utzi zuen. "Hondar ale bat bezala sentitu naiz" esan zuen, onik lurreratu eta gero. ●

Ø2008

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

KLIMA ALDAKETA ETA PAISAIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**GURE PAISAIA GEUK SORTUA DA ETA HORREXEGATIK PAISAIA
BERA DA KLIMA ALDAKETAREN ERAKUSLE NAGUSIA.**

Eguraldia aspaldian dugu hizpidean jarria; klimarena, ordea, berri samarra da. Klima aldaketa zer den argitu behar handirik ez dago. Paisaia zer den azaltzea bai, horren premia gorriagoa da. Puri-purian dago klimaren aldaketaz hitzaldi, mahai inguru edota nazioarteko konferentziak antolatzea. Ni “klima aldaketa eta paisaia” gaiaz aritu naiz mahai inguru pare batean, eta zailena paisaia geu garela azaltzea gertatzen zait.

Nahiago nuke Fernando Pessoa esaten zuen hura egia balitz: “Ez dugu ikusten ikusten duguna, geu garena ikusten dugu”. Benetan geure burua ikusiko bagenu paisaian, orduan egunero-egunero eta egun guztian egiten dugun guztia gure paisaia dela jabetuko ginatke. Den-den-denak duela eragina gure inguruan, gure ingurumenean, gure bizitza kalitatean.

Gure paisaia geuk sortua da. Paisaia guztia kulturala da, geure historian bizitzeko behar izan dugun guztia eskuratze-ko moldatu dugu. Eta kultura bakoitzak bere erara moldatzen du: larre, baso mugarrotu, txaradi, garomen, sagasti, soro... Horrexegatik parke naturala esan beharrean Parke Kulturala esan beharko genieke gure aurrekoek sortu, zaindu eta egokitu dituzten paisaia horiei. Horrexegatik paisaia bera da klima

aldaketaren erakusle nagusia. Burua joan zaigu honetan, eta, Daniel Innerarityk dioen eran: “Etorkizuna kontsumitu eta gaurkoaren zabortege bihurtzen ari gara”. Eta gure jokabidea paisaian txertatzen ari da, zizelkatzen, etengabe. Garena.

Klima aldaketa ez da mende amaierarako lau gradu berotuko dela Lurra, ez eta muturreko eguraldi erauntsiak nagusitu-ko direla, ez eta ardoa eta txokolatea eta kafea eta arrainak ez direla ia inoren eskuera egongo, ez, ez. Klima aldaketa berorri eta ni oraintxe egiten ari garena da. Gure alaba-seeek, hemendik oso urte gutxira lotsagorriturik bizituko dutena; arrazoi osoz, gu madarikatzeko paisaia sortzen ari baikatzaizkie. Fabrizio Caramagnak esan zuen: “Toki batzuk enigma bat dira, beste batzuk azalpena”.

Geure esku dagoena horixe da, baina. Etorkizuneko mada-rikazio hori ez gertatzea. Hagintzen duten axkar eta lixtoek nahi dutena esan dezatela, berorrek eta neuk geureari ekin. Henri-Frédéric Amielek zioen: “Edozein paisaia, espiritua-ren egoera bat da”. Guretzako klima aldaketa da. Beraientzat, euskaraz, aldaketa klimatikoa. Gure paisaian, Euskal Herrian! Euskararen paisaia kolonizatua. Patrick Modiano esan zuen: “Paisaiarik gabeko pertsona babesik gabe gelditzen da”. ●

EKOALDE

ESKAINZA EKOLOGIKOA BATERATUKO DUEN GUNEA MARTXAN DA NOAINEN



**GARAZI
ZABALETA**



Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak (NNPEK) proiektu berritzailea jarri du martxan Noainen: Ekoalde, Nafarroako ekoizpen ekologikoaren bilketa eta logistika zentroa. Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuak (INTIA) eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoko Enpresen elkarteak (AEN) babestuta, martxoaren 15ean ireki zituen ateak. Helburua da Nafarroako ekoizle ekologikoei beren produktuak bide laburretatik merkaturatzeko erraztasunak ematea, eta aldi berean, kontsumitzaile profesionalei produktu horiek toki bakarrean eskuratzeko aukera ematea.

TXIKIZKAKO MERKATARIENTZAT

Ekoalde gunea ez dago kontsumitzaile arruntei zuzenduta. "Kontsumitzaile profesionalei zerbitzua ematea da proiektuaren helburua, alegia, hotel, jatetxe, kafetegi, jantoki eta komertzioei hurbileko produktu ekologikoak eskaintzea", diote. Hain zuzen, produktu ekologikoak eskaini nahi dituzten komertzio eta jantokien arazo nagusietakoa da horiek lortzeko duten zailtasuna: elikagai ekologikoak sakabanatuta egotea, kantidad handiak lortzeko arazoak... Hutsune horiei irtenbidea ematea da asmoa.

Honela funtzionatuko du gunea: be-

zeroek www.ekoalde.org webguneko katalogotik eginen dute eskaera. Ekoalde eskaera horiek kudeatu eta ekoizleei pasako dizkie, eta ekoizleak beraiek izanen dira produktuak instalazioetara eramaten dituztenak. Bezeroak Ekoalden jasoko dute erosketara osoa, eta bertan eginen dute ordainketa.

PROIEKTU KOLEKTIBOA

Aipatutako hiru erakundeek ekoizleekin elkarlanean egin dute Ekoalde martxan jartzeko bidea eta aurrerantzean ere modu kolektiboan funtzionatzea dute asmo. "Nekazaritzako ekoizpen ekologikoa dinamizatzea eta produktuen banaketa eginen duen azpiegitura sortzea da bidea, baina logistika eta banaketa ekoizleek beraiek antolatuz", diote. Erakunde "parte-hartzailea, bateragarria eta demokratikoa" nahi dute bultzatzaileek, erabakietan partaide guztien hitza kontuan hartuko duena.

Gaur-gaurkoz, zigilu ekologikoa duten 50 ekoizle baino gehiago daude egitasmo hasi berrian: fruta eta barazkiak, edariak, olioak, kontserbak eta landutako jakiak, ogia, haragia, esnekiak edota bidezko merkataritzako kafe eta azukrea eskaintzen dute. Ekoizle gehiagorengana iritsi nahi dute bultzatzaileek, hala ere: "Ahalik eta gehien zabaltzea da asmoa". ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

APIRILAK 4

ZERAIN

Gazta tour. Garoa gazta dastaketa eta Oiharte sagardotegian bazkaria.

IZENA EMATEKO:
garoagaztak@gmail.com

APIRILAK 4

BILBO

Ezagutzen al duzu asiar erlea?
hitzaldia. 19:30ean Mariaren Bihotza enparantzan, Sanfran ortuak antolatuta.

APIRILAK 5, 6 ETA 7AN

IRUÑEA

Nafarroako IV Azoka Ekologikoa Geltokian.

APIRILAK 6

BASAURI

La Gilda del Norten ate irekiak.

IZENA EMATEKO:
kaixo@lagildadelnorte.com /
900 10 16 12

APIRILAK 6

GASTEIZ

Nekazaritzako Azoka Gardena. Arabako baserrietako produktuen salmenta zuzena.

APIRILAK 6

ABELLANEDA

Txakolin lehiaketa. 11:30ean Enkarterrietako Museoan.

APIRILAK 8

URDULIZ

Nola egin barazki kontserbak: bete zure jantokia kalitatezko produktuak erabiliz ikastaroa. 17:00etan Gaztelekuan.

APIRILAK 12

TUTERA

Barazkien goraipatze festa.

1978ko otsailaren 12a



KOLDO IZAGIRRE

Ez, ez, ez, zentral nuklearrik ez!

Hala zioen herriak, egun algara bihar aldarri egiten duen jende multzo horrek, datu zientifikorik behar gabe susmoz, intuizioz eta eskarmentuz biztanle izatetik herritarra izatera heltzen den kontzientzia horrek.

Nuklearrik gabe, azak jaki.

Nuklearrik gabe, kandelak argi.

Hala zioten gure klase sozial betijator eta zentzudunaren ordezkariak leize zuloetara itzuli behar izan genuelako mamua inarrosiz, herria adin eta adimen politikorik gabeko pats amorfoa izan baitzaie historikoki.

Lemoiz teknikak, zientziak, negozioak eta politikak elkarren artean dauzkaten harremanen erakustokia izan zen, lohikeria putzu bat, zinismoz eta lainezaz bete. Handik berrogeitaka urtera, Armintzako tabernan antolatu zen EITBrako mahai-inguruan, "Guretzat, zentral nuklearra jostailu bat zen" aitortu zuen hartan sartua ibili zen ingeniari zintzoak.

Munstroari beha dago mezularia, Txernobyletik etorri zitzaigun zantzu kezkarriak azaltzen ari zirela jakin genezan, Fukushima heldu zen gogor egiten jarraitzeko eskatzera, guztiok sarkofago batean amaitu nahi ez bagenuen.

Lemoiz gure klase buruzagiak demokraziarako prest zegoen ala ez frogatzeko eduki zuen aukera ezin argiagoa izan zen, eta Bixente Ameztorenen azal hau Bilboko Arte Ederretako museoan egon izan da ikusgarri, buruzagi kastak maite dituen tenpluetarrik batean alegia. ●

Isilarazteko enegarren saiakera


MIREN OSA GALDONA

Bi ertzainek egindako hizkuntz eskubideen urraketa batez informatzeagatik. Hau da, kazetaritza egiteagatik. Horratx Lander Arbelaitz epailearen aurrean jartzeko arrazoiak. Beste garai bateko kontua dirudien arren, 2019ko martxoan gertatu berri da. XXI. mendean. Ez da, ordea, botereak azken urteetan ARGIAri emandako lehen "abisua".

2013ko Donostiako AskeGunean Arbelaitz berari eraso egin zioten ertzainek. Mugikorra kendu, lurrera bota eta lehen lerrotik bortizki kanporatu zuten. Hurrengo egunetan Arbelaitzek salatu zuenez, behin baino gehiagotan jakinarazi zien ertzainei kazetaria zela eta bere lana egiten baino ez zela ari.

Testuingurua eta bi aldeetako bat aldatu arren, jokaldi bera gertatu zen hiru urte beranduago Donostiako Gipuzkoa Plazan. Orduan ere ertzainek mugikorra kendu, eta harrokeria handiz erasotu zuten Gorka Bereziartua kazetaria Gipuzkoa Zutikenean asanblada baten berri ematen ari zela.

Aurrez aurre kazetaritza egitea oztopatu ez ezik, ekonomikoki ere jartzatzen saiatu izan dira behin baino gehiagotan ARGIA. Mozal Legea ezarri zion Espainiako Gobernuak Axier Lopez kazetariari, "baimenik gabe" polizia operazio batean irudiak sareatzeagatik duela hiru urte. 601 euroko isuna ezarri nahi izan zioten. Espainiako estatuan kazetari bat Mozal Legeaz zigortu zuten lehen aldia izan zen. Tinko borrokatu zen Lopezekin ARGIA, informatzeko eskubidea oinarritzkoa eta unibertsala dela azken era arte defendatuz. Euskal Herrian irakurrienak diren hedabideek gaiak informatzea ez zela garrantzitsua erabaki zuten arren, nazioartean zabaldu zen albistea, baita *New York Times*-en ere. Epaiketa egiteko sei egun falta zirela, atzera egitea erabaki zuen aginte makila hartu berri zuen Javier de Andresek, Espainiak EAEn zuen ordezkariak, eta indargabetu egin zuen Lopezen aurkako isuna.



Axier Lopezi Mozal Legea erabiliz jarritako isuna salatzeako ateratako afixa.
Irudia: Joseba Larratxe.

Kazetaritza konprometitua eta independenteari bere jardunean hezia zein oztupoak jartzea frankismo garaietatik datorren joera izan da. Hala oroitzen zuen Miren Jone Azurzak, *Zeruko Argi*ko lehen emakumezko zuzendariak, gaiari buruz galdegindakoan, duela dozena bat urte. Azurzak astero irakurtzen zuen astekaria goitik behera, ustez erregimen frankistarentzat desegokiak izan zitezkeen hitzen bila. Behinola, 25.000 pezetako isuna jarri zieten "batzokia" izena idatzia agertu zelako. Beste horrenbeste "naziotasuna" bezalako hitzekin.

Lerroetan idatzitakoa lagin txiki bat baino ez da. Ugariak izan baitira 100 urteko ibilbidean ARGIA kate motzean lotzeko saiakerak. Garaiak garai, Argia jendeak proiektuari eusten jarraitu izan du, eta irabazitako lehia oro bezain garrantzitsua izan da babesa errepresioari aurre egiteko. Argia da etxe barrutik helarazitako mezua: informatzen jarraituko dugu, orain arte egin dugun bezala. ●

HIZKUNTZ ESKUBIDE URRAKETAZ INFORMATZEAGATIK EPAITEGIRA

Informatzen jarraituko dugu



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

"Oso kezkatuta gaude". Hitz horiekin erantzun dit ARGIAko lantaldeko kide batek martxoaren 20an, Lander Arbelaitz kazetaria epailearen aurretik pasa dela eta zer moduz joan den galdetu diodanean. Epaiketara iristeko arriskua dago, zergatik eta kazetaritza egiteagatik, informatzeagatik.

Arbelaitz 2018an Donostiako kaleetan izandako hizkuntz eskubideen urraketak bat jaso eta informatzeagatik eraman dute auzitara. Herri honetako langile publikoengana euskaraz zuzentzeko dugun eskubidea herritar bati ukatua izan zitzaiolako egin zuen publiko albistea eta Ertzaintzak barkamena eskatuz amaitu behar izan zuen eskubide urraketa horregatik. Hilabete batzuetara, ordea, eskubideak urratu zizkieten herritarrari Mozal Legez 600 euroko isuna ezarri nahi izan diote eta eztabaidan parte hartutako bi ertzainek salaketa jarri diote kazetariari.

Baina ez daramate, sinpleki, Lander Arbelaitz epaitegira. Epaitegira daramate informatzeko eskubidea. Epaitegira daramate kazetaritza independentea. Epaitegira daramate kaleko kazetaritza kritikoa eta eraginkorra. Jo-puntuari jarri dituzte gure hizkuntz eskubideak.

Epailearen aurretik pasa da kazetaria martxoaren 20an eta atarian herritar eta

Martxoaren 20an Donostiako Egia auzoko epaitegi aurrean eginiko elkarretaratzea. Argazkia: Dani Blanco.

eragile asko bildu dira babesa emateko. Bista honekin erabakiko du epaileak auziak aurrera jarraitzen duen ala ez, eta hurrengo asteetan izango dugu gehiagoren berri. Baina ARGIAko lantaldea arduratuta dago: "Epaiketara bidean jarritzen bada kasu hau, marra gorri potoloak gaitzartuko dira", adierazi dute. Espetxe zigorrek daude jokoan.

Jasotako babesa handia izan da, ez soilik epaitegi atarira bertaratuakoen. Sarean abiatutako atxikimendu kanpainan 400dik gora kazetarik, euskaltzalek, eragilek, hedabidek eta kooperatibak bota dute keinua, eta ARGIA biziki eskertuta dago.

Aspaldi ikasi genuen herri honetan, etxe honetan, kazetaritza independentea eta kritikoa defendatzen; adierazpen askatasuna borrokatzen; gure hizkuntz eskubideak babesten. Kolpeetatik defendatu egin behar izaten baita. Orain tokatu zaigun auzi honek ezin du epaiketara iritsi, auzia bertan behera gelditzea da prozesuak izan dezakeen amaiera justu bakarra. Baina injustiziez ere zerbait badakigu bazter hauetan, eta horretarako ere prest egongo gara.

Auziaren erdian iritsiko da ARGIA Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin antolatutako "Hizkuntza eskubideak, norenak?!" hitzaldia (ikus ondoko zutabea). ●

**ARGIA**

1919 · 2019

EKITALDIAK

ZAINTZAKO LANGILEEN BORROKAK MAHAI-INGURUA

Mahaikideak: **Soraya García** (zaharren egoitzak), **Elena Vasconez** (kelly-a) eta **Arantza Arrien** (baserritarra).

📍 **Bilbo** Kafe Antzokian
🕒 **Martxoak 27, 18:30**

Manu Robles-Arangiz
Institutuarekin elkarlanean.

FELIX SARASOLA HERRI OMENALDIA

📍 **Usurbil** Frontoian
🕒 **Martxoak 31, 12:00**

Gure oroitzapenak filmaren proiektioa 18:30ean Sutegin.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, NORENAK?! MAHAI-INGURUA

Mahaikideak:
Eneka Alvarez eta **Arkaitz Zarraga**
📍 **Arrasate** Kulturate
🕒 **Apirilak 4, 19:00**

Arrasate Euskaldun Dezagun
elkartearekin elkarlanean.

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAIPENAREN IKASBIDEAK HITZALDIA

Hizlaria: **Jesús Rodríguez** (Directa)
📍 **Gasteiz** Hala Bediren lokala
🕒 **Apirilak 5, 18:30**

Hala Bedi irratiarekin elkarlanean.

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



KAZETARITZA EZ DA DELITUA KAMISETA

PREZIOA: 15 euro

KOLOREA: Urdin iluna

BI MOTA: Zabala eta estua

NEURRIAK: S, M, L, XL, XXL



Gutariko Bat ETA ZARATAREN ERNAMUINA

Gizarte bakoitza bere zaratarengatik epaitu behar genukeela zioen Jacques Attali pentsalari frantziarrak. Hala bada, zer dio euskal zaratak? Horixe bera izango dugu mintzagai hiru artikuluko serie honetan. Lehenbizikoan, Euskal Herrian izan den talde interesgarri bezain ezezagun baten ibilbidea errepasatuko dugu: Gutariko Bat.

TESTUA | JON URZELAI

ARGAZKIAK | J.A. ARETA GOÑI "JUXE"

Musikaren inguruan jarduten duen kazetari batek ez du, berez, aitzakia handirik behar Xabier Erkiziarekin elkartzeko. Egiazki, lesakarraren ibilbideak nahikoa helduleku eskaintzen dizkio edonori solasaldi interesgarri bati hasiera emateko: azken aldian idatzi dituen liburuak izan litezke elkarrizketagai *–Il Rumore Lontano* azken lana, adibidez–, ekoitzi dituen taldeen gainean ere aritu zintezke *–Ainara LeGardon* edo *Grande Days* berriki–, komunikabide ugaritan egin dituen kolaborazioei buruz galdegin zeniezaioke edota etengabeko soinu esperimentazioak emandako fruituak aletu. Dudarik gabe, bada nahikoa arrazoi Erkiziari hitza emateko.

Nolanahi ere, guk korapilo beretik datorren beste hari mutur bati heldu nahi izan diogu oraingoan, komisariotu berri duen eta Bilboko Arte Ederren Museoan oraindik ikusgai dagoen *Musika Euskal Herrian 1968-2018* erakusketa abiapuntutzat hartuta. Bertan, azken 50 urtetan gurean jorratu diren doinuen inguruko azaleko azterketa egiteari muzin egin eta euskal musikak egun dituen formak hartzera iristeko egindako ibilbide bihurgunetsuari so egitea lehenetsi du musikari eta ikerlariak. Horretarako, ezinbestean, ertz guztietara zuzendu behar izan du

begirada eta, izen entzutetsuez harago, hain bereak dituen musikaren, zarataren eta hotsaren arteko muga lausoetan aritu diren sortzaileei ere erreparatu die. Geuk ere antzeko zerbait egin nahiko genuke, euskal zarataren nondik norakoak hobeki ezagutzen saiatu, alegia.

GUTARIKO BAT

Gutariko Bat taldea ere inor gutxiak sartuko luke horrelako zerrenda batean. Erkiziak ere ez du halakorik egin, apaltasun edo lotsa kontu batengatik agian. Izan ere, Xabier Erkizia bera izan zen talde hartan kantatu baino orro egiten zuena, gitarra jotzeaz eta sampleez arduratzeaz gain. Ohiko genealogietan aipatzen ez den izen honek istorio interesgarri bat gordetzen du, baina. Gutariko Bat euskal lurrarapi ilunean arakatu zalea ez denarentzat izen arrotza izan arren, Frantziako Estatuan gauzak oso bestelakoak izan omen baitziren taldearentzat zenbait urtez.

“Frantziako Estatuan arrakasta handia izan genuen, 300 bat lagunuen aurrean jotzera iristeraino. Guk ez genukeen inoiz halakorik aurreikusiko. Bordele, Paue edo Okzitaniako Tolosatik jotzera gonbidatzen gintuzten talde atzerri-tarrekin batera eta iristerakoan kartel-buruak geu ginela konturatzen ginen.

Zaleek gure kantak ezagutzen zituzten gainera, bazekiten noiz zetozen erritmo aldaketak”. Etxera itzultzerakoan ingurukoek nekez sinesten omen zituzten kontatutakoak. Izan ere, oso bestelakoak ziren kontuak mugaren hegoaldean, Gutariko Bat taldearen oihartzuna sekula ez baita handiegia izan bertan. Frantziako Estatuan, aldiz, musika aldizkarietan taldeari buruzko artikulua idazten zituzten eta, orokorrean, sona nabarmena lortu zuen taldeak zenbait zirkuitutan. Erkiziak dio beraiek ere ez zirela guztiz jabetzen gertatzen ari zenaz. “Egin kontu orduan e-mailik ere ez genuela, beraz, geure diskoetxea zen gertatzen zenaren berri izateko iturri bakarra”.

Portobello Bones taldearekin Bermeon eskaini zuten kontzertuan hasi zen dena. Zuzenekoak amaitu bezain laster, oraindik eskenatokian zeudela, gainera igo eta disko bat grabatzeko eskaini zieten zuzenean. Horrenbestekoa izan zen beste musikariengan sortutako lilura. Hazparnen kokatuta zeuden Amanita estudioetan grabatu zituzten lehen kanta horiek, aipatutako talde frantziarrarekin elkarbanatutako singlean kaleratu zituztenak, 1997. urtean. Egin zuen bere ibilbidetxoa single hark. Egun batean Amanita zigilu eta banatzaileko buru zen Stephan Kriegerrek bilera bat

egiteko beharra adierazi zien, garrantzitsua omen zen eta. Kontua zera zen, grabatu zituzten abesti haiek garaiko rock munduko izen handienetako batzuen interesa piztu zutela: Ian McKaye (Dischord Records, Fugazi) eta Jello Biafra (Alternative Tentacles Records, Dead Kennedys) taldearengatik galdetu eta informazio eske idatzi zuten. Steve Albini (Big Black, Shellac) are urrunago joan zen eta beraien disko bat grabatzeko gogoia adierazi zuen singlea entzutera iritsi zenean. Ez sinestekoa zen, baiki.

Gutariko Batek zazpi hazbeteko beste lan bat (*Ama 41*, 1998. urtekoa) eta hainbat bildumatan agertutako beste hiru abesti kaleratu zituen soilik, ez gehiago. 2006an Arto Artian kolektiboak Gutural eta Akauzazteren disko bana biltzen zituen bilduma batean batu zituen azkenik taldearen kanta guztiak CD formatuan. Zortzi abesti guztira. Grabatu omen zituzten abesti dezente gehiago halere, bai entsegu lokalean, baita estudioan ere. Nolanahi ere, abesti horiek disko gogorren batean gordeta daude egun, Iban Zubietaxu-jotzailea zendu zenean taldekideen lehentasunak goitik behera aldatu eta proiektuaren akabera iritsi baitzen. Kanta horiek gure eskura ez daudenez, soilik irudimenaren bidez epai genezake zer egiteko gai izango ote ziren. Nork daki lehen zortzi hazi horietatik zerk loratu ahal izango zukeen taldearen ibilbidea horren azkar amaitu izan ez balitz.

DESIOAREN ORDUA

Gutariko Bat taldeak egiten zuena ez zen, berez, entzuteko erraza. Oso musika indartsu eta oldarkorra zen, formula identifikagarriei era kontzientean muzin egiten ziena gainera. Askok zaratzat jotzeko luke egiten zutena eta segur aski garai haietan –taldea 1993an sortu zen– ez ziren asko halakoak egiten ausartzen zirenak. Erkiziak aitortu digu formula identifikagarri batera heltzen zirenean, moztu eta beste zerbaitekin hasteko joera zutela. Erosotasunari uko egin nahi zioten. This Heat, US Maple edo Laddio Bolocko bezalako taldeek nola txunditu zituzten gogoan du, adibidez, entseatzeari utzi eta diskoak aho-zabalik entzuten amaitze-

raino. Ezin zezaketen musika hori nola eginda zegoen ulertu. Berria zen, forma zehatzik gabekoa, okerra eta deserosoa batzuetan.

Zarataren kontzeptuak berak ere badu jarrera honekin loturarik, Erkiaren arabera. “Zarata kanonaren kontra egiten duena da, zerbait izatekotan. Horrexegatik da tokiaren eta garaia-aren araberkoa. Horretan ari direnak guxtiesteko inongo asmorik gabe, noski, baina ez du eragin bera noise-rocka 90eko hamarkadan edo gaur egun egiteak”. Zarata sortzea eredu edo arauaren kontrakoa izan da beti, dela estetiko, ideologikoa edo politikoa. Beti adierazi izan du akatsa eta *beste*a, eta horrek ha- maika oihartzun eta erabilera ezberdin

XABIER ERKIZIA

**"Zarata kanonaren
kontra egiten duena da.
Horregatik da tokiaren eta
garaia-aren araberkoa, ez
du eragin bera noise-rocka
90eko hamarkadan egiteak
edo gaur egun"**

bereziki kitzikatzen, ez ideologikoki urrunekoak izan zitezkeelako, ez zutelako halako makineria baten parte izan nahi baizik. Ibilbide markatuak ez zituzten gustuko. Protesta leloak baztertu eta ahotsa instrumentu gisa erabili nahi zuten gehiago, bolumena beste instrumentuen maila berean ezarri eta hitzen perkusibitateari jaramon gehiago egin mezuari baino. Ohiko egiturei erreparatu beharrean, isiltasunarekin eta abiadura aldatetekin jolasten zuten halako *collage* bat osatuz. Kanonetik ihes egiteak erdibide iradokitzaile batean kokatzen zituen eta hori, arazo bilakatu beharrean, plazer iturri izan zen Berako taldearentzat.

Urte haietan, Amanitak banatzen zituen diskoak noiz iritsiko zain izaten ziren Erkizia eta lagunak. Rock aldrebesa zen hasieran nahi zutena, jazz askera eta elektronika abstraktura jo zuten gero. Mugalaria bailitzan, Hazparneko estudioetara joan eta kaxa bete disko mugaz bestalde pasatzean sentitzen zuten irrika gogoan du Erki-ziak. Bilbo, Azkoitia, Donostia eta Beran egiten zituen geldialdiak, zekartzan disko haiek banatzeko. Askotan, baina, aduanan bertan izaten zituen lagunak



zain eta Bilbora ia esku-hutsik heltzen zen, disko gehienak salduta. Halakoa zen doinu berriekiko gosea. Gogoan du, halaber, Durangoko Azokan Akauzazte taldea ezagutu zueneko. Musika lata itxi baten barnean zekartela ikusi bezain pronto piztu omen zitzaion desira: ez zekien zer egongo zen hor barruan, baina entzun nahi zuen. Egun hartan, barruko kasetea hondatu gabe lata hura nola ireki ez zekiela gora eta behera aritu ostean, entzutea lortu eta gauean loak ezin hartu egon zen.



LURRAZPIKO ARRAKASTA. EUSKAL HERRIAN OSO EZAGUNAK IZAN EZ ARREN, GUTARIKO BAT TALDEAK NAZIOARTEKO MUSIKAZALEEN ARRETA DEITU ZUEN, BESTEAK BESTE FUGAZI, DEAD KENNEDYS EDO SHELLAC BEZALAKO TALDEETAKO KIDEEN BELARRIETARAINO IRITSIZ.

Tresna intuitibo bat omen da zarata, desioak gidatzen duena. Anbigua eta zikina izanagatik desira hori. "Eredutik ihes egin eta musika bere jatorrizko izaerara itzultzeko irrika dago zarataren atzean, reset egin eta norbere sena azalaratzekoa". Irrazionaltasuna eta probokazioa bere-bereak ditu zaratak, mutur parodikoetara heltzeraino batzuetan. Dena dela, desioa lehenestean dago gakoa Erkiziaren aburuz, ezezagunaren barnean murgildu eta hautu guztiz kontzienteak egin gabe gogoak gidatu zaitzan uztean.

Gutariiko Batek ez zuen, segur aski, kanon imitagarririk ezarri gurean, baina gerta zitekeen. Logika arrazionalaren detritu moduan ere uler omen dezakegu zarata eta etengabeko ihes horretan sedimentatutakoek badute eraginik inguruko sortzaileengan ere. Erkiziak aitortu digu, bere ustez, beste hainbat lurraldetan gertatu den gisara, euskal diskogintzak ere "ez duela jakin zarata metabolizatzen" eta batzuetan "patrimonialki eta nahiko era miopean" jokatu duela proposamen berriak onartu eta bultzatzeko orduan.

Aitortza, beraz, beste bide batzuetatik etorri izan da. Horren adibide da, esaterako, Lisabö taldearen *Izkiriaturik aurkitu ditudan gurak* lana. Disko koral hura prestatzen ari zirela, Erkiziari ea parte hartzeko prest egongo zen galdegin zioten, honek baiezkoka eman eta *Deliberazio* kanta sortu zuten. Abestiak Gutariiko Bat taldeak zuen soinutik edateaz gain, letra labur bezain argigarria zuen: "Tarteka, bortxatze honetan, desioari hozka egingo diot, neria baita -bederen- zati bat, neria da! -bederen- zati bat". ●



LIBURUA

Hemen da paradisua



LEUOPA
PABLO SASTRE

SUSA, 2002

ARITZ GALARRAGA


Europa da kontinente bat, ados, kontzeptu geografiko bat, kultural bat, politiko bat. Baina da batez ere amets bat, utopia bat, paradisu moduko zerbait munduko beste hainbat bazterretatik hona lekualdatu nahi duen migrariarentzat.

Tximi ez da zehazki migrari, ama Andoaingoa, aita Marokokoa, hamabi urte arte Frantzia bizitu zen, Donibanen eta Baionan. Eta hala ere “moro bat, pentsatuko zuten, zergatik horren gainian giro petrala zegoen”. Ezagun duelako saiatzen da Europara joan nahi dutenak ohartarazten, ez dela hainbestetako, gutxi duela agindutako lurraldetik. Negozio batean sartuko da Sakirekin, ordea, jendea ekarri behar dute han behetik: “Hi, nahi al duk kamionian nerekin etorri?”.

Hain zuzen, kamioi bidaia bat da liburuak harrapatzen duena, atari-ondorengoekin, baina Euskal Herritik Marokora egindako joanaldia, gero buelta giza generoz kargatuta egiteko asmoarekin. Bidaia horretako peripeziak eza gutuko ditugu, beraz, jakingarriak, ez batere aspergarriak, Tximiren ahotik kontatuak denak, ahots oso pertsonal batez, zeinak eusten dion irakurketari narrazioak irauten duen denbora guztian. Eta dena oso modu, hitzaren zentzu onean, noski, pelikuleroan. Irakurlearen aurretiko esperientzia zenbateraino den garrantzitsu, behin eta berriro etorri zait burura orain ez asko ikusitako *Oreina* filma, Koldo Almandozena, zehatzago Khalil pertsonaia, Sastreren eleberriko protagonistaren anaia biki filmikoa. “Hi berriz, pelikula

bat egiteko ere bahaiz”, esango dio uneren batean Sakik Tximiri. Almandozek izango balu sorkuntza lehorteren bat, *Leuropa* egokitzea ez litzateke aukerarik makurrena.

2002an argitaratua, migrazio berri deitu honen afera apenas gurean agertzen hasi zenean, hainbeste urte beranduago oraindik ere sekulakoa da gordezten duen gaurkotasuna, gaiak bezala nobelak. Eta gauzak gehiegi aurreratu nahi gabe, baina tesi ezin kitzikagarriago bat uzten digu azkenerako, Sussu pertsonaia erdi erdi bisionario baten ahotik: lurra ez dela horren erraz uzten, akaso zerutik joan nahi dutela auskalo nora. “Hemen duk paradisua!”. Irakurri nuen nonbait ziur aski Sastreren lanik onena zela. Hala ez bada, seguru ez dabilela sobera urruti. ●



DISKOA

Ni? Galtzaileekin!



UNIDAD ALAVESA ATAUNEN SORTUTAKO COUNTRY-FOLK-ROCK TALDEA DA

IKER BARANDIARAN

Alderdi politikoak iparrrik eta sinisgarritasunik gabe dauden honetan, interesen arabera eguna joan eguna etorri elkartu edo banatu egiten direnean, Nafarroako forua ikur eta poltrona bakar izan duten eskumako alderdiak ere horixe bera –zer den ere ez dakigu, galdetu Aizpuni ea hark badakien!– birritan merke saltzeko prest daudenean, eskerrak badaukagula zer eta Araba Perejil irla bailitzan isolatuta eta euskaroez libre izateko borroka egiteko prest dagoenik: Unidad Alavesa, alegia, ultrasokineko eta bat handia eta bakarraren alternatiba sasimoderno berri guztien aurrean “bat, txikia eta laua” aldarrikatuz burua altxatzeko ausardia izan duena. Bejondeiela!

Lurraldetasun zabalagoa eta onespen handiagoa eman zien punk-rocketik alde egin zuten aspaldi Enrique eta Benito zein Rafa Mosquera edo Rota Diez-en parera, hobe delako lehoi ipurdi baino arratoi edo patata buru izan; eta ordutik atzera begiratu gabe baina bizi izandakoa gogoan inork aurreikusten ez zituen bidezidorrak ezagutzeari ekin zioten.

Hala, mixeria horien biziraule eta integritatea nonbait galduta, ez da bategi harritzekoa disko honetako kantak malenkoniaz blai egotea, egiazko galtzaileen sentimenduz barra-barra eta, gainera, hitzak demasekoak izanda, kantak entzuleari barruraino heltzea: *Gure Jerusalem galdua* kanta samurra da, egiazkoa. *Sotamano* Tequilari go-



MARTIN MARTIN
UNIDAD ALAVESA
AUTOEKOIZPENA, 2019

razarrea. *PSOE* triki eta hammondarekin jantzitako pieza triste, alderdiaren tamainakoa. *Fede berri baten bila* sinesdun izandakoen balada-drama. *Zahartzearen onurak* Leño eta Status Quo-ren gisako bizilegea, itzela. *Materia eta ezpata* saxo eta teklatu intriganteak sarrera ematen dien Doctor Deseo eta Feelgood-en tenoreko sekuentzia. *El bastardo alumbravidas* country, rock-and-roll eta Aranjuetzeko Motorhead. *Mathematikoon* biltzarra Joseba Arregik eta Mc Gowanek elkar ezagutu gabe idatzitako habanera. Azkenik, *Los ex-sindicalistas convertidos en jefes* izan litekeen Xabi Garre eta Eskoziako Political Asylum-eko gizonen arteko paktua. ●



Ólafur Arnalds eta bere mamuak utziz

ANDREA ZUBOZKI

Atabal gelak gomitaturik, Ólafur Arnalds islandiar piano-jotzaileak kontzertu intimoa eman zuen martxoaren 9an, Biarritzeko Gare du Midi aretoan.

2016 hasieran, Ólafur Arnaldsek bere zale frikiei laguntza galdegin zien txio bidez, *Moog Piano Bar* tresna bilatzen ari zela eta. Makina horri esker, piano akustiko batek MIDI seinale numerikoa bidaltzen ahal du. Behin eskuratuta, Status programa landu du bi urtez, bere piano hegalduna beste bi pianori lotzeko. Algoritmoak, jotzen dituen akordioen arabera, beste bi pianoei segida harmoniko bat joarazten die, *arpeggiator* baten maneran.

Gare du Midi aretora sartzean, fite oharu gara apal entzuten dugun musika eszena hutsetik heldu dela. Simetrian diren bi pianoen teklak bakarrik ari dira, mamu batzuk balira bezala, eta jendearen kuriositatea pizten dute. Publiko guztia eseri orduko musikariak sartzen

dira: hiru biolin-jotzaileek eta txelo batek laguntzen dute islandiar piano-jotzailea, eta hasten diren segundotik gela harrapatzen dute. Tarteka bateria-jotzaile bat ere juntatzen zaie, post-klasiko giroa jazz kutsu batekin apainduz.

Denbora zintzilikatzen duen musika bat eskaini digute, intenporala, galaktikoa. Björk-en antzera, soken eta sintetizagailuen arteko nahasketa izugarri finki eramana da, soinu elektronikoen organiko iduri dutelako. Piano eta teklatuez gain, efektu makina batzuek ere inguratzen dute Ólafur, *reverb* eta *delay* sakonak erabiltzen dituelako kantuen apaintzeko, bere mamuek kondatzen duten poesia dirdiratsuen zerbitzuko.

Kontzertua osoki instrumentala da. Sokek botatzen duten lirismoarekin, ez da hitzen beharrik. Horren konpentsatzeko, Ólafur-ek usu hitza hartzen du kantuei lotutako anekdota baten kondatzeko. Horrela dakigu adibidez, bateriarekin hasi zela *Fighting Shit* hard-

core talde batean, baina bere amatzik ez zuela jasaten eta Chopin entzunarazi ziola aski konbentzitua izan arte pianoa hasteko. Bere oroigarri idatzitako kantu batekin bukatzen dute. Txelo eta biolinak jotzen ari diren bitartean oholtzatik jausten dira, publikoak belarriak zorrozten dituelarik magiaz beteriko kontzertu honen azken notez baliatu ahal izateko.

Baina ez zuten taula gainean zirenek baizik momentu hau zoragarri egin, argi teknikarien lana ere azpimarratzekoa baita. Musikaren erritmo eta giroa erresetatuz joko politekin apaintzen dute, soiltasun eta elegantzia maisu.

Ólafur Arnaldsen aireak goizeko lo eta esnatu arteko momentuak bezalakoak dira, belarrietara istorio idilikoak xuxurlatzen dizkigute. Taldea osatzen duten sei musikariak eta bi mamuak Europako biran dira, baina Biarritzen eskaini zuten kontzertua Euskal Herriko bakarra zen maleruski. Guíxols-en izanzen dira, Katalunian, uztailaren 19an. ●



Bertso-zopa

Osa ezazu Beñat Gaztelumendik 2017an Mutrikun botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Amodioa gauza tristea*. Gaia: Hainbeste jende zain egon den hitzaldia emateko ordua heldu da.

Bi urte dira gure herrira
iritsi zela _____
Espainiatik jaso ditugu
mespretxua ta bekaitza
_____ poliki arrakalatuz
joan da haien harkaitza
Kataluniako presidentia naiz
nahiz askorentzat den _____
ta ematera nijoa orain
galdeketaren _____.

Ia ehuneko hirurogeia
da kutxetatik _____
ta izan dira ezezko baino
askoz _____ gehiago.
Nahiz Moncloatik esan ziguten
"Uztazue" ta "Akaboi!"
esan digute ta _____
gaur baino askoz lehenago
baina hitza preso har dezakeen
_____ zibilik ez dago.

Herriak eman zuena orain
agintariak _____ du
gizarteari aspaldi zaio
bere momentua _____.
Urriak bata eta aurrera
beira _____ gaude gu
Espainiaren aginduei lehen
maiz obeditu diegu
baina hemendik aurrerakoa
guk _____ degu.



T	G	J	I	G	U	A	R	D	I	A	G	Z	S	C
P	E	I	D	J	B	I	P	H	J	I	A	N	O	C
T	C	G	U	N	J	G	M	H	F	L	I	B	K	B
L	N	B	B	A	S	A	L	N	M	E	T	T	Z	M
P	N	H	R	L	O	A	D	P	H	D	Z	D	E	F
A	C	C	P	H	A	Z	F	G	T	G	A	H	I	M
V	V	M	H	L	C	T	U	A	E	Z	A	D	A	I
P	C	L	J	T	S	I	N	U	D	T	A	D	B	T
U	M	T	G	B	E	A	J	T	X	N	E	B	R	A
S	S	V	R	F	S	M	Z	A	I	C	J	S	H	Z
B	T	P	G	M	R	E	T	A	M	E	B	A	O	T
R	E	C	L	S	M	U	B	O	R	A	G	I	N	I
R	H	T	C	A	T	I	R	R	A	J	V	M	M	A
A	B	G	E	F	R	C	L	N	P	U	J	J	A	K
R	T	P	O	K	I	K	A	B	A	R	E	V	F	E
J	H	E	L	D	U	A	R	S	V	U	P	J	M	V

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



arabera, Lurreko paradisua. Oihua, hotsa.

Goitik behera:

1. Heziketa, hezkuntza. 2. Hotsik egin gabe. 3. Herri nafarra. Mozkorraldiaren eragina. 4. Silaba hinduista. Bezala, gisa. 5. Saihestu. 6. Errana. Dauka (alderantziz). 7. Santuren apokopea. Otzara handi. 8. Bilatzaile. 9. Zorakeria.

Ezker-eskuin:

1. Zorne, gai zornetsu. Jaioberrien elikagai. 2. Berriketa. 3. Sabeleko orbain. **Lapurdiko udalerria (Argazkian)**. 4. Artilea egiten edo harrotzen duena. Modu atzizkia (alderantziz). 5. Pare bat. Idazten duena. 6. Ikasketak egin. Suitzako ibaia. 7. Gutxi jatea. 8. Bibliaren

Sudokua

				1	9	5		
						8		
5			6				4	1
7		3	1	6				9
6	2	9		7		1	5	3
8				5	3	7		6
3	9				1			8
		5						
		4	3	2				

ERRAZA

	7			1		9		
	4	8		5			3	
					2			
7			5			2		
5	8			4			1	9
		6			1			8
			2					
	5			3		7	2	
		3		7			6	

ZAILA

EBAZPENAK

Bi urte dira gure herrira/iritsi zela **ekaitza**/Espainiatik jaso ditugu/mespretxua ta bekaitza/**baina** poliki arrakalatuz/joan da haien harkaitza/Kataluniako presidentia naiz/nahiz askorentzat den **gauza**/ta ematera nijoa orain/galdeketaren **emaitza**/Ia ehuneko hirurogeia/da kutxetatik **igaro**/Ia izan dira ezezko baino/askoz **batezko** gehiago/Nahiz Moncloatik esan ziguten/"Uztazue" ta "Akaboi"/esan digute ta **mehatxatu**/gaur baino askoz lehenago/baina hitza preso har dezakeen/**guardia** zibilik ez dago./Herriak eman zuena orain/agintariak **bete** du/gizarteari aspaldi zaio/bere momentua **heldu**/Urriak bata eta aurrera/heira **jarrira** gaude gu/Espainiaren aginduei lehen/maiz obeditu diegu/baina hemendik aurrerakoa/guk **erabakiko** degu.

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

Esker-eskuin:
1. Hiru, Esne, 2. Esmesa, 3. Zil, Kanbo, 4. Ila, 5. Bil, 6. Idazle, 7. Janurri, 8. Aje, 9. Om, Gisan, 5. Eki, 6. Esana, Ud, 7. San, Zare, 8. Bilari, 9. Erokeria.

Goitik behera:
1. Heziketa, 2. Hotsik, 3. Rala, 4. Om, Gisan, 5. Eki, 6. Esana, Ud, 7. San, Zare, 8. Bilari, 9. Erokeria.

Ezker-eskuin:
1. Hiru, Esne, 2. Esmesa, 3. Zil, Kanbo, 4. Ila, 5. Bil, 6. Idazle, 7. Janurri, 8. Aje, 9. Om, Gisan, 5. Eki, 6. Esana, Ud, 7. San, Zare, 8. Bilari, 9. Erokeria.

Amaia Izaola

SOZIOLOGOA



“Integratzeko erraztasun handiagoa dute emakumeek”

Bertokoen eta etorkinen arteko harremanak ikertu ditu Amaia Izaola (Getxo, 1957) EHUko soziologia irakasleak. 2013an, bere doktorego tesian, jatorriaren arabera etorkinak sailkatzeko sortzen ditugun eskemak aztertu zituen, baita etorkinek bertokoez dituzten irudi kolektiboak ere. Norabide biko begirada horien azterlana bildu zuen 2016an argitaratutako *Miradas Cruzadas: La Construcción Social de la Otridad* liburuan.

TESTUA | **JABI ZABALA**
ARGAZKIAK | **IÑIGO AZKONA**

KUADRILLAZ HARAGO

“Azken etorkinen olatu handia baino lehenago heldutako marokoarrak, euren erlijioa eta kultura utzi gabe, errazago egin dira hemengo gizartera. Egia da kolektiboa txikia denean behartuago zaudela integratzera. Zenbat eta gehiago izan, nukleo itxiagoak sor daitezke. Parkean ere, nork bere hizkuntzakideekin biltzeko joera du. Tira, kuadrillak beti egon izan dira, baina kuadrilla horretatik ateratzen zarenean gertatzen dena interesatzen zait. Zer gertatzen da metroan ez duzunean jesarri nahi pertsona baten ondoan, bere itxuragatik beste nonbaitekoa dela dakizulako? Hori gertatzen ari da”.

Zeintzuk dira aztertu dituzun etorkin taldeak?

Errumaniarrak, marokoarrak, boliviarrak, senegaldarrak, kolonbiarrak eta txinatarak. Euskal Herrian gutxienez bost urte eman dituzten gizon eta emakumeak izan behar ziren, lana zutenak edo berriki lana galdutakoak, baliabide ekonomikoek ez zezaten euren integrazioari buruzko iritzian gehiegi eragin.

Etorkinak sailkatzeko eskema tipiko edota idealak sortzen ditugu gizarte hartzaileotan. Nola sortzen ditugu?

Nagusiki sumatzen ditugun zenbait gauzetan oinarritu ohi ditugu, euren jatorriaren arabera eta profil fenotipikoen arabera berehala etiketatzen ditugu-eta. Ondoren, ezaugarri horien arabera, gehiago edo gutxiago hurbilduko gara haiengana.

Zure liburuan ikuspegi bikoitzaz mintzo zara: batetik, jatorrizko

nazio bera izateak partekatutako ezaugarriak ematen ditu; baina bestetik, euren ustezko identitate kolektiboa gurearekin kontrastatzea eragiten du.

Bai, aztertu nahi nuen ea guk jatorriaren arabera haietaz ditugun iritzia edo tipifikazioak bat ote dagoen beraien ustez guk ditugun iritziekin. Alderantzizko norabidea ere interesatzen zitzaidan, behatzeko noraino ikusten zuten euren burua gizartean txertatuta. Gaztelania dela eta, printzipioz jatorri jakin batzuetako zenbait talde hurbilago sentitu beharko lirateke, kolonbiarrak eta boliviarrak kasu.

Eta hala da?

Bai, oro har bai, baina egia da badela distortsioa sortzen duen elementu bat. Errumaniarrak adibidez, Europar Batasunekoak izanik, ustez hurbilago ikusi behar zuten beren burua. Baina urruntasun pertzepzioa sumatzen da, bai gudan beraiekiko



TOPIKOAK. ERAIKUNTZA SOZIALA DIRA TOPIKOAK, BAINA ERREALITATETIK GUTXI DUTE ETA MEKANISMO ASKOREN ERAGINPEAN ERAIKITZEN DITUGU. BOLO-BOLO DABILTZAN IRITZIEK ETA HEDABIDEAK ERAGIN HANDIA DUTE.

zein beraiengan gurekiko, errumaniar ijitoen faktore etnikoa tartean delako. Boliviarrakin ere antzera gertatu zait, latinoamerikarrak izanik ere, urruntasun pertzepzio gehiago dago euren artean. Aldagai etnikoa dago hemen ere, hirietakoek gugandik hurbilago ikusten dute euren burua nekazal guneetakoek baino.

Zer hipotesi zenuen eta zer ondorio atera duzu?

Nire abiaburua zen etorkinez ditugun irudiek geroz eta eragin handiagoa izango dutela gure gizarte harremanetan, baldintzatu egingo dituztela integratzeko erak. Esaten erraza da, baina frogatu egin behar da. Hipotesia baieztatu dut, ustekabeko era batean gainera. Izan ere, etorkinen kolektibo batzuek geure marko kognitibo berak erabiltzen dituzte beste etorkin kolektiboetarako. Gurekiko ere badi-tuzte guk darabiltzagun topiko berak, itxiak garelako eta horrelakoak.

Gizon eta emakumeen artean ezber-

dintasunak aurkitu dituzu?

Oro har integratzeko erraztasun handiagoa dute emakumeek. Honetan amatasunak garrantzia du. Adibidez, emakume kolonbiar batek zera esan zidan: "Autobus geltokia magikoa da, emakume guztiok berdinak gara bertan". Gizon kolonbiar batek, aldiz, kontatu zidan berari asko kostatu zitzaiola bere tokia egitea, eta bere hitzetan, emazteak "Kolonbiatik iritsi eta biharamunean bazuen kuadrilla".

Etorkinak ondo hartuak dira hemen?

Kanpotik datozenak ondo hartuak izan daitezen baldintza onak daude, sozialak eta egiturazkoak, ez baitira etorkin kopuru handiak. Ikerketaz geroztik, egoera zertxobait aldatu da, krisia egon da tartean, eta errefuxiatuen gaia agertu da. Kalean egoera txartu duten kontu batzuk agertu dira, aurrejuzguak-eta, baina beste leku batzuetan baino gutxiago.

Liburuan diozunez, kolektiboki sortzen dugun urruntasun-hurbiltasun eskalan jatorri batzuetakoak urru-

negi ezartzen ditugu, "kulturalki ez bateragarri" moduan sailkatzeraino.

Agerikoa da hori. Lehen-lehenik hizkuntza dago, eta gero badira partekatzen zailagoak diren elementuak, kultura edo erlijioa kasu. Hizkuntzak eta kulturak gizarte harremanak baldintzatzen dituzte, baina egia da, halaber, denboraren poderioz harremanak naturaltasun gehiagorekin egiten direla. Badira beren baitan ixten diren talde batzuk eta eurekin espazioak partekatzea zailagoa zaigu.

Topikoak eraikuntza sozialak dira, denok lehen hurbilketa baterako erabiltzen ditugun arren.

Bai, badira, baina errealitatetik gutxi dute eta mekanismo askoren eraginpean erakitzen ditugu. Bolo-bolo dabilzan iritziek eta hedabideek eragin handia dute topikoetan. Gero zurrumurruak hedatzeko dugun joera maltzurra dago, sakelakoaren bidez-eta. Gazteen arteko liskar baten berri izan orduko, kanpotarrak badira, munta handiagoa ematen zaio eta gaiarekin ezberdin jokatu ohi dugu. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Komunikazio arduraduna kaleratu du PSEk, Denis Itxaso agertzen ez den argazki bat zabaltzeagatik



Gipuzkoako Pssse-ko komunikazio arduradun Jaime Vocerok azaldu duenez, ulertzen du alderdiak bera kaleratu izana: "Egin dudanak ez du barkamenik. *Itxa* [hizkera sozialista darabil] agertzen ez den irudi hori ikustean ezabatu egin behar nuen, ordenagailuko 'GOD' karpetan gorde beharrean gainerakoekin batera. Egun arrunt bat


zen. Ohi legez Diario Vasco ~~ko~~ kolega politika arduradunarentzat prestatu niotuen egunkaria egiteko egunero behar izaten dituzten *Itxaren* 15-20 argazkiak. Baina "Bidali" botoia sakatu eta segituan jabetu nintzen akatsaz. Enpin, merezita daukat, baina zer egingo diogu bada, Iberdrolako nire lanpostura itzuli beharko dut". ●

SAREAN ARRANTZATUA

X jauna txikitan



Txikizkako denda



LA POLLAREN FANSKAK, EL CORTE INGLESEN SARRERAK EROSI OSTEO PHOTOCCALLEAN

La Polla Recordsen tributu taldeak La Polla Records baino autentikoagoak dira jada, ikerketa baten arabera

EHUren Musikologia fakultateak plazaratu duen ikerketa batek zientifikoki egiaztatu du La Polla Records taldea omentzeko sorturiko tributu-taldeak dagoeneko benetakoagoak direla La Polla Records taldea bera baino. "Erromeriya efektua" deiturikoak esplikatzeko duen fenomeno hau, Adi Tinpanotegi ikerlariak esplikatu duenez: "Musika talde batek egindako ekarpena guztiz agortzen denean,

haren erreperitorioaren potentzial bakarra edozein herriko jaixetan egiten diren erromerietan jotzea da", bere esanetan. "Eta funtzio hori tributu-taldeek betetzen dutenez, benetako taldea itzultzen denean berbena baten kopia kaskar baten itxura hartzen du". Ikerketa publikatu ostean, EHUren kontrako atentatu suizida prestatzen hasi dira Evaristoren Tesiguak, El Correok zabaltu duenez. ●

Hizkuntz
eskubide baten
urraketaz
informatzeagatik
epaituak

 #UtziArgiaBakean



Bultza kazetaritza independentea

Egin zaitez ARGIAkoa:
[ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA](https://argia.eus/eginargiakoa)



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA



ZAINZAKO LANGILEEN BORROKAK



Mahaikideak:

SORAYA GARCÍA
ZAHARREN EGOITZAKO LANGILEA

ELENA VASCONEZ
KELLYA

ARANTZA ARRIEN
BASERRITARRA

SILVIA CONY
ETXEKO LANGILEA

Moderatzailea:

ONINTZA IRURETA

📍 **BILBO**
Kafe Antzokia

📅 **MARTXOAK 27**
Asteazkena
18:30
